



## Durangaldea prest Korrikari ongietorria egiteko

**Korrika** • Datorren astean, Korrika birritan pasatuko da eskualdetik: eguaztenean Zaldibartik eta Mallabitik, eta barikuan Zornotzatik, lurretatik, Abadiñotik, Berriztik, Elorriotik, Atxondotik, Durangotik, Izurtzatik, Mañaritik eta Otxandiotik. Herririk herri ekitaldi sortak antolatu dituzte euskararen aldeko ekimen erraldoiari ongietorria egiteko. Korrika zuzenean jarraitu daiteke 'anboto.org' webgunean. • 28-29



### Berdeago Azokak 10. urteurrena egingo du martxoaren 22tik 24ra

**Gehigarria** • Urte biko ete-naldiaren ondoren, Berdeago Azoka Durangoko Landako Gunera bueltatuko da. Beste behin ere, jasangarritasunaren arloko berrikuntzak ezagutzeko aukera eskainiko du. • 13-19



### Zelaietan bulego zerbitzua lau egunetan ematea gura dute

**Durangaldea** • EAEn, 2008an baino %51 banketxe gutxiago dago gaur egun. Eskualdean herri askotan geratu dira zerbitzurik barik, eta beste batzuetan murriztu egin dute zerbitzua. • 2-3

## L'Atelier dantza eskolako guraso talde batek Koreo elkarteak sortu du


**Dantza** • Asteburu honetan, L'Atelier dantza eskolako dantzariak Asturiasen eta Burgosen lehiatuko dira. Hemendik aurrera, ia astebururo bidaiatuko dute dantza lehiaketetan parte hartzeko. Irteera horiek familiei eragiten dien gastua arintzeko, dantza eskolako gurasok Koreo elkarteak sortu dute. • 24



## Gaur egun, 2008an baino 34 banketxe gutxiago dago Durangaldean

2008an 70 banketxe zeuden guztira Durangaldean, eta 2024an 36 daude

### Bulego kopuruen bilakaera Durangaldean



Iturria: Espainiako Bankua, Saretzen

anboto

### DURANGALDEA • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Herritarrok oinarrizko hainbat zerbitzu ditugu eta horietariko bat bankuek eskaintzen duten bezeroaren arretarako zerbitzua da. Azken 15 urteetan, Euskal Autonomia Erkidegoan eta Nafarroan zerbitzu hau dezente murriztu da. EAEn, esaterako, gaur egun 2008an baino 1.034 bulego gutxiago dago. Hau da, zerbitzua %51 murriztu da.

Gure eskualdean ere herririk gehienetan gertatu da hori, eta beherakada oso nabaria da askotan. Durangon, esaterako, 2008an 30 banketxetan ematen zuten bulego zerbitzua, eta gaur egun 13tan ematen dute. Zornotzan 14 bulego zeuden, eta gaur egun 7 daude. Elorrioren 6 zeuden, eta orain 4 daude.

Eskualdeko herri batzuetan arazoa handiagoa da, batere zerbitzurik barik geratu dira eta. Iurretan banketxe bi zeuden 2008an, eta bezeroaren arretarako zerbitzua ematen zuten bertan. Gaur egun ez dago zerbitzu hori herrian, eta, beraz, iurretarrak Durangora joan behar izaten dute zerbitzua jasotzera.

Atxondoko egoera ere berdina da. 2008an banketxe bat zegoen eta 2019ko abendutik hona ez dute bulego zerbitzurik ematen bertan.

Kutxazain bat baino ez dago erabilgarri. Kutxabankek harturiko erabaki honek haserrea sorrarazi zuen herritar askorengan. 2012an "errekurtsoen optimizazioa" argudiatuta, bankuak bulegoa egun bitan baino ez zabaltzea erabaki zuten. Eta 2019an bulegoa ixtea erabaki zuten, "eraginkortasun eta osagarritasun" arrazoiak zirela eta. Harrezkero, zerbitzu hori jasotzeko gura duten herritarrek Elorriora edo Abadiñora joan behar dute.

Urterik urtera, arazoa eskualdeko beste herri batzuetara zabaltzen doa apurka-apurka. 2021ean, Otxandion ematen zuten zerbitzua murriztea erabaki zuten Kutxabankek. Horrek herritarren "haserrea eta egonezina" ekarri zituen. Otxandioko Udalak erreklamazio idatzi bat bidali zion Kutxabankek herriko egoera zein den azaltzeko. Hala ere, Kutxabankek murriztu

**Gaur egun, 2008an baino 1.034 banketxe gutxiago dago Euskal Autonomia Erkidegoan**

egin zuten zerbitzua. Jendaurreko zerbitzua egun guztietan egotetik, astean egun bitan ematera pasatu zen.

### DURANGALDEA • GOIENA

Digitalizazioaren ondorioz, hainbat aldaketa izan dira jendearen egunerokoa eta funtzionatzeko eran. Digitalizazioaren eraginetariko bat bankuetako funtzionamenduan nabari da. Euren jokatzeko era aldatu egin da eta digitalizazioak aurrez aurreko bulego zerbitzuak murriztea ekarri du, besteak beste.

#### Laboral Kutxan noiztik zabilzate digitalizazioarekin?

Zail da esatea, baina gure etxean lehenengo ordenagailua sartu zen momentutik. Esango nuke 70eko hamarkada amaieran izango zela. Orduan hasi ginen ordenagailuekin lanean, eta, pixkanaka-pixkanaka, 80ko hamarkadaren hasieran kutxazainak etorri ziren. Horren ondoren, 1995 inguruan, online bankarekin hasi ginen. Eta, noski, smartphonen etorrerak iraultza handi bat ekarri zigun. Momentu honetan digitalizazioa erabat txertatuta dago gugan, ezin dira banatu digitalizazioa eta bankuen sektorea.

#### Prozesu honetan zehar egokitzen joan beharko zenuten, ezta?

Horrela da, bai. Gure bazkideak tresna berri honetara trebatu behar izan ditugu. Baina gure erronkarik handiena gure antolaketa izan da. Banka oso sektore lehiakorra da, ezin daiteke atzean

## “Garrantzia ematen diogu pertsonak erdigunean jartzeari; bulegoak mantentzea oso garrantzitsua da guretzat”

ANBOTOK eta Tokikomeko beste hainbat herri komunikabidek bankuen egoera eta digitalizazioaren eragina aztertu dituzte. Horren barruan, GOIENAK Debagoienako eta Goierriko Laboral Kutxako zuzendari Josean Aparicio elkarrizketatu du

geratu, eta eskaerari aurre egin behar diogu. Horrek gure harreman eredu aldaketa eraman gaitu. Garai batean, bezeroekin aurrez aurre egoten ginen. Gaur egun, berriz, entitateak berak pentsatu behar du zer harreman duen bezero bakoitzarekin. Azken finean, batzuekin online egoten gara, beste batzuekin telefonoz, eta beste batzuekin aurrez aurre. Orduan, hori guretzat eraldaketa handia izan da.

#### Eraldaketa honek nola eragin dio langile kopuruari?

Lanpostuak erabat eraldatu dira; lehen lan batzuk egiten genituen eta orain beste batzuk egiten ditugu. Baina langile kopuruari dagokionez, gurean mantendu egiten da. Duela 20 urte eta gaur egun langile kopuru berdina daukagu. Lehen, bulegoetan gehiago zeuden, eta orain zentraletik ari dira gehiago.

#### Bezeroek nola hartu dute digitalizazioa?

Bezeroekiko arretari begira dena aldatu da, eta esango nuke ondo

egokitu direla honetara. Gazteak honekin jaiotzen dira; beraz, hauek ez dute arazorik. Hauentzat digitala ez den entitate bat ez da bideragarria. Bestalde, jende heldua edo ez hain heldua dago. Horiei gure laguntza eskaintzen diegu. Eta, nola ez, bulegoan ematen ditugun zerbitzuak ere eskaintzen dizkiegu.

#### Etorkizuna banketxeetako bulego eta kutxazain gabekoa izango da? Ala jarraituko dute gure herri eta hirietan egoten?

Gure herrietako plazetan gure bulegoek hor jarraituko dute. Guk gure bezeroari erarik onenean digitalki arreta ematen jarraituko dugu, eta elkarrizketa pertsonalari fokua jartzen. Horretarako, gure bulegoak eraldatuko ditugu, eta bulego horiek eman beharko digute aukera bi kanaletatik zerbitzua emateko. Guk garrantzia ematen diogu pertsonak erdigunean jartzeari, eta horretan jarraituko dugu. Beraz, alde horretatik, bulegoak mantentzea eta bulegoetatik negozioa bideratzea oso garrantzitsua da guretzat. Hori bai, egunen batean,



pertsonak aukera hori eskatzen ez badute, moztu egin beharko genu-

ke. Baina, normalean, pertsonen pertsonekin egon gura dute.

## "Zerbitzuak murrizteak Zelaietako giza hartu-emanak moteldu du; auzoa ume asko bizi den basamortu bihurtzen hasita dago"

Gaur egun Kutxabanken bulegoa astean birritan baino ez da egoten zabalik Zelaietan, martitzen eta egunetan



Herri plataformako kideak.

### ABADIÑO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Bankuek euren zerbitzuak murriztea polemika iturri bihurtu da azken urteotan Abadiñon. Herri honen kasua oso berezia da. Bulego zerbitzua ematen duten sei banku daude bertan, eurretan bost Traña-Matienan, eta bakarria Zelaietan. Zelaietako bulegoak, bertakoei ez ezik inguruko auzotarrei ere ematen

die zerbitzua, Muntsaratzeko, Mendiolako, Sagastako, Irazolako eta Gazteluko auzotarrei, besteak beste. Baita inguruko herrietakoei ere; Atxondokoei, esaterako. Atxondarrek 2019tik ez dute bankuko bulego zerbitzurik herrian. Baina 2022 hasieran, sukurtsalak Zelaietako bulegoa astean behin baino ez zabaltea erabaki zuen. Kutxabanke har-

turiko erabaki horrek herritarrek "hasarrarazi" zituen, eta herri plataforma bat sortu zuten. Plataformako kideek azaldu zutenenez, "Kutxabanke Zelaietan ematen duena ez da zerbitzu bat". Eta hori salatzeko eta arreta hobea eskatzeko, sinadura bilketa hasi zuten.

Gaur egun, bulegoa astean birritan egoten da zabalik, mar-

titzen eta egunetan. Abuztuan, bulegoa itxi egiten dute. Egun bitan barik, bulegoa lau egunetan zabaltea eskatu zuten plataformakoek, lanordu kopuru bera mantenduta. Hau da, eguneko lau ordu zabaltea: "Abadiñoko udaletxean izan genituen bilertan, 10:00etatik 14:00etara zabalteko eskatu genion Kutxabanki. Lanordu kopuru bera da, baina

lau egunetan izango genuke zerbitzua. Proposamen hori egin genien, baina orain arte ez dute kontuan hartu", adierazi dute plataformako kideek. Lortu den "gauza bakarrenetarikoa" kutxazain berria ipintzea dela adierazi dute. "Zaharra puntuan-puntuan hondatzen zen eta asteburu askotan zerbitzurik barik egoten ginen. Gainera, sarritan, txartelen bat edo libretaren bat kutxazain barruan geratzen zen", gaineratu dute.

**Egun bitan barik, bulegoa lau egunetan zabaltea eskatu zuten herritarrek, lanordu kopuru bera mantenduta**

Bulego zerbitzua murriztearen erabakiak herritarren eguneroan eragin zuzen-zuzena duela azaldu dute. Izan ere, Zelaietako sukurtsalean astean birritan baino ezin dituzte egin euren gestioak orain. Gainerakoetan, Traña-Matienara edo Durangora joan behar izaten dute. "Herritarrek alde batetik bestera ibiltzea ekarri du honek. Gure denbora ez da aintzat hartzen, eta, bien bitartean, bezero hor gabilta bankuarentzat lanean. Esaten digute ingurumenaren gaia integrala eta integratua dela, baina ezin esan kontuan hartzen dutenik", gehitu dute.

Bestalde, horrelako erabakiek herria apurka-apurka bizirik barik uzten dutela esan dute: "Gestioak beste tokiren batean egin behar baditugu, erosketak ere kanpoan egiteko aprobetxatzen dugu. Horrek gure ohiturak aldatzea dakar. Zerbitzuak murrizteak Zelaietako giza hartu-emanak asko moteldu du; apurka-apurka, auzoa ume asko bizi den basamortu bihurtzen hasita dago. Zerbitzurik ez duen herria basamortua da". Arazo horri irtenbide bat bilatu, egoerari buelta eman eta herria "basamortu" izan ez dadin, ahalik eta lasterren soluzio bat eskatzen dute abadiñarrek.

bertako  
igogailuak | ascensores  
KORRIKAN ERE

EUSKARA,  
GURE HELBURU  
PARTEKATUA

946 523 935 bertoko.eus



## DURANGALDEA • EKAITZ HERRERA

Jendeak euren postura joateko ohitura hartu duela igarri dute. Baina ez dute hor geratu gura. Erosleen komunitatea handitu gura dute, eta tokikoak, sasoi-koak eta ekologikoak diren elikagai-eko kontzientzia zabaltzen jarraitu. Alazne Intxauspek eta Fernando Lejarzak erantzun diete galderei. Lehenengoak ortuariak eta berdura-kremak ekoizten ditu, Orozketako Iparragirre baserrian, Bejondeizula izenpean. Bigarrenak barazkiak eta fruta ekoizten ditu, Elorrioko Pulla baserrian, izen bereko markapean.

## Etartiek urte bi egin ditu. Zelakoa izan da orain arteko bidea?

**F.L.:** Balantze positiboa egiten dugu. Ekoizleen artean elkarlana sortzea ez da erraza, eta elkarregaz antolatzeta eta lan txukun bat egitea lortu dugula iruditzen zait. Ekonomiko-ki ere balantze ona egiten dugu, apurka-apurka bada ere gorantz egin dugula ikusi dugu eta. Gero, erronkak daude. Erosleagaz dugun elkarlana handitu gura dugu, era horretan postu honetan lan egingo duen behargin bat kontratatu ahal izateko. Momentu honetan, proiektuan esku hartzen duen ekoizle bakoitzak hiru txanda egiten ditu hilean, dendari.

**A.I.:** Proiektu honen hazia aspaldikoa da, askok zapatuetako baserri-tarren merkatutik elkar ezagutzen genuen eta. Iruditzen zait gurearen moduko ekoizpen txikiak batzeko ezinbestekoak direla horrelako formulak topatzea eta horiei bidea egitea. Geu gara ekoizleak, geu saltzaileak, geu administrariak. Momentu honetan, bederatzi gara hemen esku hartzen dugun ekoizleak.

## Eredu industrialaren aldean, zuen proposamena oso bestelakoa da.

**F.L.:** Bai. Hemen saltzen dugun ia dena, %90, ekologikoa da, eta %80 edo gehiago Durangaldean eginikoa. Eta produktu batzuk gure ortuetan ez ditugunean, kanpotik ekartzen ditugu. Adibidez, patata eta tipula Arabatik ekartzen ditugu. Kasu horietan, proiektua eza-gutzen duten ekoizleak laguntzen digute. Gure filosofiagaz bat egiten duten ekoizleak dira.

**A.I.:** Gure elikagaiak etxeakoak

# “Etartieren moduko formulak ezinbestekoak dira ekoizpen txikiak batu eta aurrera egiteko”

Urte bi pasatu dira eskualdeko baserri-tar ekoizleek Durangoko merkatu plazan Etartie denda zabaldu zutenetik. Martxoaren 20an, eguenean, urtebetetze jaia ospatuko dute



dira, osasuntsuak. Dendari lane-tan dagoen ekoizleak zuzeneko kontaktua du erosleagaz. Erosketa hemen egiten duzunean, ekoizle txikiak eta eskualdeko ekonomia indartzen dituzu.

## Tokiko produktuari dagokionez, zelakoa da erosleok dugun kontzientzia?

**F.L.:** Azkenaldian bolo-bolo dabil-tza agroekologiari loturiko berba potoloak: trantsizio ekologikoa, aldaketa klimatikoa edo elikadura subiranotasuna. Gure xumetasunetik, erosleari gauzak errazago esan behar dizkiogulakoan nago. Hau da, hemen ikusten duzuna da dagoena. Ez duzu tomaterik topatuko urteko sasoi guztietan. Berdin gertatuko zaizu lekaleekin zein azalo-

reekin. Erosleari hori ulertaraztea egundoko lana da, baina hemen egonda, merkatuan egonda, hori posible da. Azken finean, horrek sinesgarritasuna ematen digu.

**A.I.:** Azkenaldian, prezioa garesti-tzeari buruzkoak entzuten gabiltza. Gure produktuek garestiak izateko fama dute. Baina guk oreka baten aldeko apustua egiten dugu. Ahalegintzen gara eroslearentzat eta ekoizlearentzat duintasun bat bilatzen. Eredu industrialetik irteteko era bat da. Gauza jakina da ezin dugula tomatea euro bian ekoizti. Jendeak ulertu egin behar du hori, baina aprobeztatu ere ez dugu egin gura. Duintasuna behar dugu, oreka bat.

**F.L.:** Bai, jatekoari buruz berba egin behar dugu. Nork ekoizten du? Non ekoizten du? Zelan ekoizten du? Horrek guzti horrek garrantzia du osasunean, herrian, ingurunean zein turismoan. Dena dago asmatuta: jatekoa lehentasuna da. Baina, jakina, gero interes ekonomikoak daude, lobbyak, estrategiak. Gurea bada horren kontra borrokatzeko era bat.

## Urte hauetan bietan jendea Etartera etortzera ohitu da?

**A.I.:** Eboluzio bat ikusi dugu. Esango nuke badagoela ohitura hartu duen jende bat, baina edozein bezerok pozten gaitu. Astean egun bitan arratsalde ere zabaltzen dugu. Bezero gazteagoarengana

heltzeko asmoz hartu genuen erabaki hori; probatzeko, ezagutzeko. Hori oso pozgarria da. Esango nuke tokitxoan lortzen gabiltzala, nahiz eta gehiago gura dugun.

## Martxoaren 20an urtebetetze jaia egingo duzue. Zelakoa izango da?

**A.I.:** Ospakizuna elkargune bat izatea gura dugu. Balorazio bat egin eta aurrera begirako erronkak markatuko ditugu. Gure bidelagunekin eta bidelagun izango direnekin ordu biko tarte gozo bat izatea gura dugu. Eskerrak eman gura dizkiegu, eta mokaduak, edariak eta musika izango ditugu. Ospakizuna 18:00etatik 20:00etara izango da. Jendea etortzera animatu gura dugu.

## Zer eman dizue bizimodu honek?

**F.L.:** Ni erretiratzeko adinean nago, baina ez daukat jubilatzeko gogorik. Gustura nago eta esango nuke lan honek zoriontsu izateko modu bat topatu dudala. Lehen, lantegi batean lan egiten nuen. Diru gehiago nuen, denbora gehiago, baina hemen zoriontsuagoa naiz. Gorputzak uzten didan bitartean, honetan jarraituko dut. Lanean, eta atzetik datozenei erakusten.

**A.I.:** Nik dozena bat urte daramatzat mundu honetan. Ordu-tegi eta diru aldetik gizarteak erosotzat hartzen dituen beste lan askotan ibili naiz behar-rean, baina ez nuen lortzen bakean egotea, eta orain lortu dut. Ez da erraza, baina neure bidea egiten nabilela sentitzen dut, gizarteari ekarpenen bat egiten diodala sentitzen dut.

## Ordu-tegiak Etartien:

**Astelehena:** 10:00 - 13:00

**Martitzena:** 10:00 - 13:00 eta 17:00 - 20:00

**Eguaztena:** Zarratuta

**Eguena:** 10:00 - 13:00 eta 17:00 - 20:00

**Barikua:** 10:00 - 13:00

**anboto**

Gertuko Koop S.,  
Gizarte Ekimenekoa

Bixente Kapanaga, 9  
48215 Iurreta - Bizkaia  
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523  
Publizitatea: 946 217 902

2024ko urtarrilaren 12a  
22. urtea - 963. alea

Lege gordailua:  
BI-2268/01  
ISSN:  
1578-7028  
Tirada:  
12.000 ale



**Bizkaia**  
foru aldundia  
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



**EUSKO JAURLARITZA**

**GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

# Andra Mari, Txintxirri, Kurutziaga eta Ibaizabal ikastolak etorkizunaz hausnartzeko prozesuan murgilduta

'Biharko ikastolak' irudikatzen, bakoitzak bere lanketa egitea da asmoa. Ekarpenguztiak jasota, ekainaren 22an egingo duten Batzar Nagusia izango da mugarrira



Durango Kurutziaga ikastolan eginiko batzarra.

**DURANGALDEA • JONE GUENETXEA**

VII. Batzarrerako eztabaida prozesuaren barruan, Ikastolen Elkartearen kolektiboak Bizkaiko lehenengo batzarra egin du Kurutziagan. Zornotzako Andra Mari, Elorrioko Txintxirri eta Durango Kurutziaga eta Ibaizabal ikastoletako ordezkariak batu ziren bilera horretan, besteak beste. Ildo horretatik, ikastola bakoitzak bere lanketa egitea da hurrengo pausoa. Denen ekarpenekin, ekainaren 22an batzar nagusia egingo dute, biharko ikastolak irudikatzen. Hiru ikastoletako komunitateak prozesu horretan parte hartzea gonbidatu dituzte. "Datozen 8-10 urteetako erronkak zehaztu, hauei aurre egin eta helburu nagusiak ezartzea gura dugu. Gaurtik begirata, biharko ikastolak irudikatzen unea dela ikusten dugu gure kolektibotik. Horregaitik, hezkuntza komunitateko kideen parte hartzea garrantzitsua izango da", azaldu du Urko Rodriguez Kurutziagako zuzendariak.



Erretiratu ez diren bizikletak hondakin legez prozesatuko dituzte.

## Luzaroan utziriko bizikletak kenduko dituzte kaleetatik

Durango Udaltzaingoak bizikletak kaleetatik kendu eta hondakin legez prozesatuko ditu apirilaren 1etik aurrera

**DURANGO • AITOR RUIZ**

Durango Udalak, udaltzaingoaren bitartez, kanpaina bat hasi du kalean luzaroan utziriko bizikletak bertatik erretiratzeko. Kanpainaren helburuak "espazioak libre uztea eta hiri estetika hobetzea" dira. Udal iturriekin jakinarazi dutenez, udaltzaingoak erretiratu egingo ditu apirilaren

1a baino lehenago jasotzen ez diren eta abandonatuta daudela interpretatu daitezkeen bizikletak. Udalak 946 030 010 telefonora deitzea gomendatzen du kasu horietan zer egin jakiteko eta edozein zalantza argitzeko. Era berean, aurretiaz eskertu dituzte herritarrek eskaintako laguntasuna eta ulermena.

# MGEP

MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA  
JOSE MARIA ARIZMENDIARRIETA, KOOP. E.



**Markel Perez Arregi**

**Mekatronika Industrial  
Goi Mailako Heziketa Zikloa**

**Zer dela eta erabaki zenuen Goi Mailako Heziketa Zikloa hau egitea? Eta zergatik MGEPen?**

Betidanik gustatu izan zaizkidalako teknologiarekin lotutako gaiak. Hasieran, ingeniari mekanikoan sartu nintzen, baina hau utzi eta teknologia edo industria munduan jarraitzeko aukerarik onena mekatronika industrialeko goi mailako zikloan sartzea iruditu zitzaidan.

**Zer suposatu du zuretzat zikloa ikasteak? Zikloko zein aspektu azpimarratuko zenuke?**

Industriarako aplikatzen diren hainbeste ezagutza ikasteak batez ere, eta teoria hori ia guztiz praktikan jartzearena izango litzateke.

**Noiz hasi zinen DUALean? Noiz bukatzen duzu? Zein izan da zure instruktorea ENPRESAn? Zein da ENPRESAn lan esparrua edo sektorea? Eta zein da zure DUALeko lan saila?**

2023ko ekainaren 16an hasi nintzen eta datorren urteko ekainaren 16an bukatuko dut. Nire instruktorea Asier Gutierrez izan da. Enpresari dagokionez makina-erreminta sektorean lan egiten du. Ni zehazki buruen lan sailean egon naiz.

#LanerakoGertu

**Zein motatako lanak egiten dituzu DUALean? Ikasitakoarekin lerrokatuak al daude? Zer nolako ardurak hartu behar izan dituzu?**

DAS (Dynamic active stability) -ak muntatzen ditut, aharidun fresatzeko makinan doazen bibrazioen aurkako amortiguazio sistema bat da. Hauek muntatzerako orduan ikasitako hainbat arlo lerrokatuak daudela esango nuke: sistema mekanikoak, planoak interpretatzea, zundak eta potentzia sarrerak kableatzea...

Arduraren aldetik hainbat ardurak hartu ditudala esango nuke, batetik DAS-a muntatzearen ardura edukitzea, hau da muntaia egoki bat izatea ondoren hau probatzen edo martxan jartzerako orduan dena ondo dagoela ziurtatzeko, erreminta batzuen erabilerearen ardura ere...

**Zer eskaini dizu ENPRESAn DUALa egiteak arlo pertsonalean zein arlo tekniko-profesionalean?**

Alde pertsonalean diziplina edukitzea, izan ere, egunero goiz jaikitzeak eta egunero behar den orduan egoteak diziplina ematen dizu. Horretaz aparte, jendearekin tratua egokia edukitzea, izan ere, adin eta postu desberdineko jendearekin tratua edukitzea garrantzitsua da lanean bakoitzaren ongizatea bermatzeko. Arlo profesionalean, industria mailan jada garrantziko moduko proiektu hau muntatzeko eta probatzeko gai izateak, beteta egotea sentiarazten nau.

**Zer gomendio emango zenioke orain ikasten ari den norbaiti? Edo zikloa ikasi ala ez pentsatzen ari den norbaiti?**

Industria alorra edo teknologia mundua gustatzen zaion pertsonari guztiz gomendatuko nioke ziklo hau, guztiz murgilarazten zaituelako sektore honetan.

**ATE IREKIAK: Martxoak 23, 11:00  
Maiatzak 4, 11:00**

**Eman izena!**

**MGEP: 664 298 683 // 664 298 704**



# Arkitekto talde batek Kurutziagako biribilgunerako eginiko proposamena aurkeztuko diete elorriarrei

Elorrioko Udaletik jakinarazi dute arkitekto taldeak proposamen bi landu dituela. Horien artean aukeratu beharko dute

**ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR**

Kurutziagako bidegurutzea puntu beltz eta gatazkatsua da Elorrioren, eta azken urte hauetan Elorrioko Udala lanean dabil arazo horri irtenbide bat emateko. 2022ko urtarrilean proposamen bat aurkeztu zieten herritarrei, bertan bidegurutze berri bat edo biribilgune bat egiteko. Herritarrek biribilgunearen alternatiba

**Azalpenak bi saiotan emango dituzte, lehenengoa martxoaren 20an izango da Iturrin**

aukeratu zuten. Galdeketa, 16 urtetik gorako 4.795 elorriarren artean 1.178 lagunek parte hartu

zuten, eta horietatik %91k bozkatu zuten biribilgunea egitearen alde.

Behin herritarren iritzia zein den jakinda, Elorrioko Udalak proiektua idazteko lizitazioa za-

baldu zuen eta une honetan fase horretan daude. Hori horrela, udalak jakinarazi du arkitekto talde batek proposamen bi landu dituela, eta proposamenok herritarrei aurkeztu gura dizkietela, gero

bietako baten alde egin dezaten.

Proposamenak aurkezteko, azalpen saio bi egingo dituzte Iturri Kultur Etxan. Lehenengo bilera martxoaren 20an izango da, 18:00etan.



Elorrioko Kurutziagako biribilgunea.

## Basoen Nazioarteko Egunaren harira, bertako haritzak banatuko dituzte

**ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR**

Basoen Nazioarteko Eguna ospatzeko, Elorrioko Udalak, Elorrio-Atxondon Baso Biziak elkartearen laguntzagaz, bertako zuhaitzak banatuko ditu herritarren artean. Zuhaitzak Bizkaiko Foru Aldundiak emanikoak dira, Quercus robur (bertoko haritza) espezie autoktonokoa. Landarea eskuratu gura dutenek izena eman beharko dute martxoaren 18a baino lehenago, horretarako udalak sortu duen inprimakia beteta.

Basoen Nazioarteko Eguna martxoaren 21ean ospatzen da. Egun hori aprobetxatuta, udalak elorriarrak sentsibilizatzea ere lortu gura du ekimen honeguz; hau da, zuhaitzek ematen dizkiguten onurez kontzientziatzea.

## Lankidetzaz hitzarmena Bultzatu fundazioagaz

**ABADIÑO • MAIALEN ZUAZUBISKAR**

Abadiño Udalak eta Bultzatu fundazioak lankidetzaz hitzarmena sinatu dute Laguntza Teknikoen Bankua (LTB) proiektua martxan ipintzeko. Besteak beste, mendekotasuna duten edo mugitzeko zailtasuna duten pertsonen gorpil-aulkia, taka-takak, garbiak edo ohe artikulatuak mailegatzeko zerbitzu solidarioa da.

Hori horrela, beharrezakoa duten pertsonen Bultzaturen laguntza eskatu ahal izango dute udal bulegoetan edo gizarte laguntzailearen bitartez. Ondoren, funda-

zioa familiagaz hartu-emanen ipiniko da ebaluazioa egiteko, eta, hala badagokio, eskaturiko laguntza emateko.

"Informazio kanpaina bat egingo dugu, laguntza horiek eskatzen dituztenek eta haien familiak zerbitzua ezagutu dezaten. Gainera, behar duten pertsona guztiek eskuratu ahal izateaz arduratuko gara, eta egoera zaurgarrian dauden edo baliabide mugatuak dituzten pertsonen ez dute ordaindu beharko", azaldu du Edurne Maguregi Gizarte Ongizateko zinegotziak.



Abadiño Udaleko eta Bultzatu fundazioaren kideak.

## Bertso saioa egingo dute, bihar, Abadiñon, Lasterbidean egitasmoaren barruan

**ABADIÑO • MAIALEN ZUAZUBISKAR**

Ekainean Abadiñon egingo den euskal preso eta iheslarien eskubideen aldeko Lasterbidean egitasmoaren barruan, hainbat ekintza antolatzen hasi dira Durangaldean.

Motorrak berotzeko antolatutako lehenengotariko ekimena bihar, martxoak 16, egingo den bertso saioa izango da. 20:00etan izango da, Traña-Matienako Errota Kul-

## Atxondoko Udalak berriro Udalbiltzako kide izatea erabaki du

Otsailean eginiko osoko bilkuran erabaki zuten erakunde nazional horren parte izatea



Atxondoko udaletxearen argazkia.

**ATXONDO • JONE GUENETXEA**

Otsailaren amaieran egin zuen osoko bilkuran, Atxondoko Udalak Euskal Herriko garapen eta barne kohesioa sustatzea helburu duen Udalbiltza Partzuergoan berriro sartzeko eskaera egitea onartu zuen. Eskaera erakunde nazional horren Kontseilu Nagusiari egin behar zaio.

Atxondoko Udaletik jakinarazi dutenez, "Udalbiltza Patzuergoagaz eta bere estatutuekin bat datorrela"

sinetsita hartu dute erabakia. "Honek aukera zuzena emango digu beste udalerrri batzuetan aurrera eroan diren proiektu interesgarri asko ezagutu, eta, moduren batean, geure egiteko", adierazi du Eneritz Agirre alkateak. Izan ere, "Udal-

**"Udalbiltza Patzuergoagaz eta bere estatutuekin bat datorrela" sinetsita dago Atxondoko Udala**

biltzak euskal lurraldea zatitzen duten hiru eremu administratibotako udalen arteko elkar ezagutza eta lankidetzaz instituzionala bultzatzen ditu", gaineratu du.

## Bertso saioa Traña-Matienako Errota Kultur Etxean izango da, bihar, zapatuan, 20:00etan

tur Etxean. Amets Arzallus, Oihana Bartra, Erika Lagoma, Sustrai Colina eta Bittor Altube bertsolariak arituko dira kantuan bertan. Itxaro Juaristi abadiñarra arituko da gai jartzaile lanetan.

Bertso saioa ez da izango Abadiñon egingo duten ekintza bakarra. Apirilaren 19an bakarrik saioa egongo da Zelaietan, probalekuan, 19:30ean. Hauek izango dira umoregileak: Ana Goitia, Mirari Martiarena eta Ion Martinez 'Txiki'.

[www.gualbiasesores.com](http://www.gualbiasesores.com)

**Bezeroa, bere enpresako  
kudeaketa eta bere  
gogobetetzea dira  
gure helburu nagusia**



- ✓ **Aholkularitza fiskala**
- ✓ **Kontabilitate-aholkularitza**
- ✓ **Merkataritza eta finantza-aholkularitza**
- ✓ **Lan-aholkularitza**
- ✓ **Kontu-auditoretza**
- ✓ **Aholkularitza juridikoa**

**Zumalakarregi kalea, 18 1.A - DURANGO**

**Tel.:946 818 636 - Faxe: 946 203 637 - [info@gualbiasesores.com](mailto:info@gualbiasesores.com)**

# 'Aurrera Jaizale' biribilketa berria estreinatuko dute Mallabian, Durangaldeko Txistulari Egunean

Urte askoan Gasteizko danborradaren gidaria izan den Jose Maria Bastidaren pieza berria joko dute kalejiran

**MALLABIA • JOSEBA DERTEANO**

Iaz Otxandion egin zuten eta aurretik Mallabiak hartuko du erreleboa. Domeka honetan Durangaldeko Txistulari Egunean 68. aldia egingo dute Mallabian, Jaizale Txistulari elkarteak antolatuta.

Urtero legez, Durangaldeko herririk gehienetako txistulariak ez ezik eskualdetik kanpokoak ere batuko ditu ekimenak: Bilbokoak, Gasteizkoak, Bermeokoak eta beste herri batzuetakoak. Denek elkarregaz kalejiran irtengo dute, 09:30ean. Kalerik kale entzungo diren doinu guztiak ez dira ezagunak izango. Eurretari bat lehenengoz plazaratuko dute: *Aurrera Jaizaleak* biribilketa. Urte askoan Gasteizko danborradaren gidaria izan den Jose Maria Bastida "Txapi"-k Jaizalarentzat egun honen harira eginiko konposizioa da. Aurten, Bastidaren beste konposizio berri bat ere estreinatuko dute eskualdean: Kriskitinen Surrandien Konpartsaren 25. urteurrena ospatzeko Surrandien Dantzako musika.

**Kontzertua elizan**

Kalejira goizeko lehenengo osagaia izango da, baina ez bakarrik. Kalerik kale ibili ostean, txistulariak Mallabiko Andra Mari elizan batuko dira, 12:30ean, eta kontzertua emango dute. Metal talde baten eta dultzaineroen laguntza ere izango dute. Eta Mallabiko kantuak abestu egingo du. Denen elkarlanari eskerrak, hainbat pieza joko dute, bertaratzen dire-

nen gozagarri. Ondoren, ohitura duten legez, txistulariek Erregelak dantzatuko dituzte. Goiza behar den moduan amaitzeko, denek elkarregaz bazkalduko dute.

San Jose egunaren bueltan ohi duen moduan, Erdoitzako Ama nagusien elkarteak urteko batzar orokorra egingo du domeka honetan, 13:00etan, plaza ondoko nagusien lokalean. 2023ko kontuak argituko dituzte eta aurtengo urteari begirako aurrekontua onartuko dute. Ho-



Iaz Otxandion eginiko Txistulari Eguneko irudia. JAIZALE

## Erdoitzako Ama nagusien elkarteak batzar orokorra egingo du domekan

**IZURTZA • J.D.**

San Jose egunaren bueltan ohi duen moduan, Erdoitzako Ama nagusien elkarteak urteko batzar orokorra egingo du domeka honetan, 13:00etan, plaza ondoko nagusien lokalean. 2023ko kontuak argituko dituzte eta aurtengo urteari begirako aurrekontua onartuko dute. Ho-

**Aurtengo egunpasa Azpeitira izango da, ekainean, eta Trenaren Museoa bisitatuko dute**

urretz gainera, zuzendaritza batzordea berritzea egokituko zaie. Elkarteko presidente Karmelo Irastorzak 12 urte daramatza karguan eta erreleboa eman gura lukeela dio, baina ikusi egin beharko da hautagaitza berririk aurkezten den. Bestelakoan, aurtengo egun-pasa Azpeitira izango da, ekainean. Bertan, Trenaren Museoa bisitatuko dute, besteak beste.

## Mañariko Udalak herri marka berria sortzeko dinamika egingo du bihar

Goizean zehar, gogoeta egiteaz gainera, Imanol Ituño mago eta ilusionistaren ikuskizunaz gozatzeko aukera ere egongo da



Udalak hasi duen dinamika herri marka berria sortzea du helburu.

**MAÑARIA • J.D.**

Mañariko Udalak herri marka berria sortzeko prozesuari ekin dio. Horretarako, herritar guztiak gonbidatu ditu martxoaren 16rako antolatu duen dinamikarako. Dinamika horrek herritar bakoitzak Mañaria zelan ikusten duen ikusteko lagunduko du, iraganetik etorkizunerako bide horretan orainari ere erreparatuta. Saioa 11:00etan hasiko da, frontoian. Herritarrei egin zaien gonbidapenean azpimarratutako moduan, Mañaria mendi artean bizi den herria da, mañariarrek eurek bizi eta ondorengoak hazi gura dituzten lekua: "Auzo eta txoko bakoitza historia bat da gure plazan, non komunitatea ez den soilik kontzeptu bat, egun egun eraikitzen den errealitate bat baino. Harro gaude orain arte lortu dugunagaz, baina gure begirada beti dago zerumugan", nabarmendu dute.

Goizeko lanketa egiteaz gainera, bertaratuko direnek Imanol Ituño mago eta ilusionistaren ikuskizunaz gozatzeko aukera izango dute. Ondoren, mokadu bat hartzeko tartea ere izango dute.

## Alegazioen epea martxan Castillo parke eolikoaren proiekturako

Egitasmoak Legutiori eta Ubideri eragiten die, batez ere; Otxandiotik dorre baterako hoditeria joango litzateke

**OTXANDIO • J.D.**

Kastillo izeneko parke eolikoaren proiektua eta ingurumen azterketa publiko egin zituzten joan zen astean. Horrela, joan zen asteko astelehenetik hasita, 30 egun baliaduneko epea dago alegazioak aurkezteko, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkari iragarpenak zehazten duenez.

Parke horri dagozkion aerosorgailuak eta bestelako eraikinak Ubideko (Bizkaia) eta Legutiori (Araba) lurretan egongo dira. Hain zuzen ere, Legutiori lau aerosorgailu ipiniko litzateke, 5 megawatteko potentzia unitarioak —20 MW, guztira—, eta 120 metroko altuera duen abatza dutenak. Aerosorgailuak 30 kilowatteko azpiegitura elektrikoak lotuko litzateke.

Bestalde, Ubideko lurretan dorre meteorologiko bat ipiniko lukete, 121 metroko altuerakoa. Azpiegitura honek Otxandiori eragingo lioke. Dorrea Motxotegi mendiaren gainaldean egi-

tea aurreikusita dago, Ubideko lurretan, baina Otxandio mugakide duela. Dorre horretara doazen hodi kanalizazioa Otxandiotik lurretatik igaroko litzateke. Lur horietan basoak daude eta lurren jabetza udalarena edo Aldundiarena da. Dorre iraunkor hori parkeko kontrol eta monitorizazio sistemara lotuta egongo litzateke.

Aldizkari ofizialeko iragarpenak parke eolikoari buruzko bestelako datu batzuk ere jasotzen ditu, parkea egiteak suposatuko lukeen inbertsioari buruzkoak, hain zuzen ere. Parke eolikoaren aurrekontua 18.726.844 eurokoa da. Horrez

**Dorre meteorologikoa Motxotegi mendiaren gainean ipiniko lukete, Ubideko lurretan**

gainera, ebaluazio-linea egiteak beste 1.266.826 euroko inbertsioa eskatuko luke.



# Ostalaritza gida


DURANGO

## BASA Eroateko janaria



**Untzillatx, 9**  
**Tel.: 747 421 104**

Hemengo eta kanpoko platerak, kalitatezko eta gertuko produktuez prestatuak. Eguneko menua eta karta. Etorri ta eroan!

 @basa.durango



DURANGO

## IBAIZABAL



**Ibaizabal taldea, 2B**  
**Tel.: 946 550 185**

Plater konbinatuak, hanburgesak, ogitartekoak eta kazolatxoak. Ostiraletan pintxopotea!

IURRETA

## GAUARGI



**Dantzari, 4 behea**  
**Tel.: 944 356 674**

Eramateko tortilla bereziak. Barikuetan mollete eta errazioak. Domeketan rabak eta askotariko errazioak.

 @gauargitaberna

ZORNOTZA

## XIBERU



**Zeilia Gallartzagaitia, 9**  
**Tel.: 946 181 758**

Gosari bereziak egunero, pintxopotea ostegunero eta afariak astebururo. Giro alaia eta atsegina. Ongi etorri Xiberura.

 Xiberu Taberna

 @xiberutaberna

DURANGO


## OLAJAUREGI



**Kurutziaga, 52**  
**Tel.: 946 200 864**

Ostegun eta ostiral eguerdian 26€-tan eguneko menua; bestalde, ostegunetik igandera eguerdian 'Dastatze menua' 45€-tan. Gauetan, 'Pikoteo' izeneko karta berezia. Zuek ezagutzeko prest gaude! Etorri eta gozatu gure jaki, ostatu eta jatetxeaz.

 HOTEL Olajauregi

 @hotel\_olajauregi\_jatetxea





**anboto**  
kide

## Anbotokideen txokoa

### MARTXOKO ZOZKETAK



**Baginaren bakarrizketak** antzerkia, Arriolan. Martxoak 23an 20:00etan.



**Almazenean** antzerkia, Zornotza Aretoan. Martxoak 22an 20:00etan



**Euskaldungak** antzerkia, San Agustin Kulturgunean. Martxoak 21ean 19:00etan.

\*Zozketa hauetan parte hartzeko eman izena gure webgunean.

### IRABAZLEAK

'Mr.Boho': Laura Oñate Urien

Xiberu: Arantza Agorria Pardueles

'Iratxoak eta basoko sorginkeria': Leire Darretxe Urrutxi

'Mamuka': Urko Zabaleta Azarloza

**Okm:**  
batzen gaituen  
distantzia

Egin zaituzte Anbotokide  
eta parte hartu gure  
zozketetan!



## Auzokideak eta udala batzartu egin dira, Eitzagan egin beharreko hobekuntzak ezagutzeko

Auzotik pasatzen diren ibilgailuen abiadura eta plazaren egoera dira auzokideek planteaturiko hobekuntza nagusiak

**ZALDIBAR • AITZIBER BASAURI**

Zaldibarko Udala Eitzagako bizilagunekin bildu zen martitzenean, auzokideen kezka ezagutzeko. Prentsa oharrean azaldu dutenez, zaborteziaren inguruko informazioa partekatu zuten eta auzokideek gai honen inguruan zituzten kezken inguruan berba egin zuten.

**Auzorako hobekuntzak**

Bizilagunek auzoan egin beharreko hobekuntzak mahaigainerratu zituzten. Eitzagako bidean dabilzan ibilgailuen abiaduragaz kezkatuta daudela azaldu zuten, eta arazoari konponbidea bilatzeko eskatu zioten udalari.

Beste eskaeratariko bat auzoko plazan hobekuntzak egitea izan zen. Zaldibarko Udala auzokideen eskaerak kontuan hartuko dituela azaldu du arlo horietan hobekuntzak egiteko. Udalak gogoratu duenez, 2024ko aurrekontuetan 40.000 euroko diru atala aurreikusi zuen Eitzagarako. "Eitzagako auzokideek asko sufritu dute zaborteziaren inguruan gertaturiko denagaz. Horregaitik, 40.000 euroko diru atala aurreikusi genuen auzoan hobekuntzak egin ahal izateko. Behin auzokideekin bilduta, zein proiektu martxan ipini erabakiko dugu", azaldu du Eneritz Azpitarte alkateak.



Eneritz Azpitarte alkatea Eitzagako auzokideekin martitzenean eginiko batzarrean.

## Valentin Lasuen organista eta txistulari berriztarra hil da

89 urte gaz zendu zen, martitzenean. Berrizko parrokiako organista eta Iremiñe Dantza Taldeko txistularia izan zen

**BERRIZ • JOSEBA DERTEANO**

Valentin Lasuen Olabegoia organista eta txistulari berriztarra martitzen goizaldean hil zen, 89 urte zituela. Lasuen parrokiako horretako organista izan zen makina bat urtean, domeke-

tako mezetan zein bestelako elizkizunetan. Orain urtebete pasatxora arte jo zuen organoa. Txistularia eta txistu irakaslea ere izan zen, eta hainbat urtean Iremiñe Dantza Taldean jo zuen txistua.



Valentin Lasuen organoa jotzen.

## Zaldibarko terrazen ordenantzari ekarpenak egiteko aukera

**ZALDIBAR • AITZIBER BASAURI**

Zaldibarko Udala, prentsa ohar bidez, terrazen ordenantza idatzi duela azaldu du. Orain, udalak bere webgunean ipini du araudi hori, interesa duten herritarrek ekarpenak egin ahal izateko. Ordenantza honek herriko zazpi establezimenduri eragingo die. "Terrazak garrantzitsuak dira tabernarientzat, eta, elkarlanean, ostalariei laguntzen ibili gara, terrazak handitzeko aukera emateko", azaldu du Eneritz Azpitarte alkateak. Behin proposamenak jasota, ordenantza plenotik

**"Elkarlanean, ostalariei laguntzen gaitza terrazak handitzeko aukera emateko", esan du alkateak**

pasatuko da, ohiko prozedurari jarraituta. Proposamenen bat egin gura duenak honako bide hauek jarraitu ditzake apirilaren 11 baino lehenago bere ekarpenak udalari jakinarazteko: udaletxean bertan aurrez aurre, udalaren webgunean [www.zaldibar.eus](http://www.zaldibar.eus) (kexak eta iradokizunak atalean) eta elektronikoki egoitza elektronikoan ([egoitza.zaldibar.eus](http://egoitza.zaldibar.eus)).

## Martxan da Berrizko HAPO berriaren parte hartze prozesua

**BERRIZ • MAIALEN ZUAZUBISKAR**

Berrizko Udala Hiri Antolamenduko Plan Orokor berria prestatzen dabil. Udaletik jakinarazi dutenez, plan horretan hiri garapenaren estrategia eta plangintza jasoko dira. Hori dela eta, berriztarren parte hartzea sustatzeko, partaidetza plana egin da eta hainbat ekintza egiten dabil-tza.

Eguaztenean lehenengo berbaldi informatiboa egin zuten, eta bertan HAPOa zer den azaldu zuten. Bestalde, martxoaren 20an, 16:00etatik 18:00etara bitartean, karpa bat ipiniko dute Bolatokian, eta 18:30ean jardunaldi parte hartzaile bat egingo dute. Apirilaren 10ean, 18:30ean, *Hirigintza barneratzailea* tailerra egingo dute, Kultur Etxean.

# Korrika Garain ez, baina Garai Korrikan bai

Garaiko Udalak eta Trumoitte elkarteak bat egin dute AEKren egitasmoagaz. Kilometro bana erosi dute lekukoa eramateko



Garaiko herritarrak 2019ko Korrikan, Berriz aldean.

**GARAI • EKAITZ HERRERA**

Aurten ere ez. Korrika ez da Garaitik pasatuko, baina garaita-

rrak Korrikan izango dira, hutsik egin barik, edizio guztietan legez. Trumoitte Kultur Elkarteak

eta Garaiko Udalak bat egin dute AEKren lasterketa erraldoiagaz, kilometro bana erositara. Martxoaren

22an hartuko dute lekukoa, Korrika Durangaldeko herririk gehientsuenetatik igaroko den egunean. Trumoitteko kideek Berrizen hartuko dute lekukoa, 19:50ean, Juliantxu jatetxea zegoen tokiaren bueltan. Elkarteak kilometroan parte hartzera deitu ditu herritarrak. Garaiko Udalak ere beste horrenbeste egingo du, Abadiñon. Udalak kilometro bat erosi eta herriko eragileak gonbidatu ditu (Nagusien Elkarte, Triatloi Taldea, Jai Batzordea, Trumoitte eta abar) kilometroa elkarregaz egitera. Bestalde, Trumoitte egitarau txiki bat antolatu du martxoaren 14ari begira, Korrika nagusiaren atariko legez. 17:30ean Korrikarako kartelak prestatuko dituzte Ludotekan. Ondoren, Korrika Txikia egingo dute herrian zehar, eta, azkenik, kopaua.

## Irati Otadui abeslari gazteak hasiko du Auzorik Auzo egitaraua Iurretan

**IURRETA • AITZIBER BASAURI**

Asteburu honetan Auzorik Auzo kultur egitaraua hasiko dute Iurretan. Hain zuzen ere, Irati Otadui iurretarrak emango duen kontzertuagaz hasiko da herriko auzo eta ermitetara musika hurbiltzea helburu duen ekimena. Emanaldia Amataza auzoan izango da, 18:00etan. 19 urteko gazteak betiko euskal abestien hainbat bertasio abestuko du gitarragaz, publiko guztiarentzat.

Hurrengo kontzertua maiatzaren 11n izango da, Bakixa auzoan. Joxe Mendizabal soinu-jole, konpositore eta musika ekoizlea gonbidatu dute Iurretara. Bestalde, ekainaren 1ean, Durangoko Herri Maite akordeoi taldeak emango du kontzertua, San Andres auzoan.

## "Herriko emakumeen aniztasuna" jasotzen duen Plana onartu dute

Udalbatzak aho batez onartu du testu berria. Zornotzan indarrean sartzen den laugarren Berdintasun Plana da

**ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA**

Martxoaren 8agaz batera, Zornotzako udalbatzak Berdintasun Plan berria onartu zuen, udalerrian indarrean sartzen den laugarrena. Araudi berrian "errealitate diskriminatzaileak ezabatzen" jarraitzeko bideak islatu dituzte, udalerrin "feminista, berdinzale eta justuagoa" eraikitzen segitzeko. Zortzi programa eta 30 neurri espezifikoko jaso dituzte; guztiak ere, "errealitatea transformatzeari" begira. Testu berria Jon Artabe zinegotzi jeltzaleak aurkeztu zuen. Adierazi zuenez, "interseksionalitateari" loturiko ezaugarriak jaso dituzte, "herriko emakumeen aniztasun guztia" islatzeko. Alicia Hernan-

dez gobernukide sozialistak plan berria txalotu zuen: "Orain arte eginiko Berdintasun Planik aniztasuna eta parte hartzaileena da".

Oposizioko alderdiek testu berria babestu zuten. Planak "oso eduki positiboak" dituela berretsi zuen Bego Atxa EH Bilduren bozeramaileak. Hala ere, planagaz "etekin politikoa" atera gura izatea leporatu zion gorberru taldeari, azken honek Martxoaren 8agaz bat eginda programatu zuen-eta testuaren onarpena. Elkarrekin Podemos - Ezker Anitza taldeko Alba Gutierrezek "plan aurrerakoa" dela esan zuen, baina kritikoa agertu zen udalak Martxoaren 8ari eginiko "keinugaz".



Zornotzako udalbatza, martxoaren 8an.



### Gure ikasleen ahotsan

**"Modalitate DUALak komunikazioaren sektorea barrutik ezagutzeko eta profesionalengandik asko ikasteko aukera eman dit"**

**Ikus-entzunezko Komunikazioa graduko 3. mailan zaude, zergatik aukeratu zenuen gradu hau eta zergatik Mondragon Unibertsitatean?**  
Txikitatik ikus-entzunezkoak oso gustuko izan ditut. Gradu hau deskubritu nuenean ikasteko aukera paregabea zela iruditu zitzaidan. Mondragon Unibertsitateak ikasketa horiek erronka eta proiektu ezberdinen bidez era praktikoa aurrera ateratzeko aukera zabaldu zidanean neure ibilbidea bertatik hasiko nuela erabaki nuen etxekoekin batera.

**Nolakoa izan da orain arte bizitako esperientzia?**  
Paregabea. Erronka guztietatik zerbait ikasi dut, eta gutxinaka-gutxinaka neure burua zein arlotatik espezializatu nahi dudana erabakitzen hasia nago.

**Zer metodologia erabiltzen duzue?**  
Gutziz praktikoa da. Arloak moduluka sailkatzeak arlo bakoitzari jartzen diogun arreta askoz ere handiagoa izatea eragiten digu. Azterketak beharrez, azken entregak proiektuak izateak erronka horietan moduluan zehar ikasitako guztia islatzeko gogoia ematen digu, horrela geure buruari eboluzio bat erakutsiz.

**Unibertsitateatik zer da gehien gustatzen zaizuna?**  
Bertan sortu dugun elkartzaren giroa. Ikasle gutxi garenaz, gure arteko harremana zein irakasleekikoa estuagoa da, eta erronka berriak aurrera ateratzeko orduan laguntza alde guztietatik jasotzen dugu.

**Lanean ari zara ikasten duzun bitartean, DUAL eredu. Non ari zara jardunean eta zer lan mota egiten duzu?**  
Sorland Komunikazio Agentzian nago lanean, Abadiñon. DUALa egiteko eman didaten aukera honek sektorea barrutik ezagutzeko eta profesionalengandik asko ikasteko aukera eman dit. Lehenengo unetik, arlo guztiak probatzeko askatasuna eman didate, neure burua egokien non ikusten dudana erabakitze eta aldi berean lanpostu ezberdinei buruz gauza berriak ikasteko.

**Zer-nolako ekarpena egiten dizu eredu DUALak?**  
Sorland agentziak hasieratik askatasun osoz nire ideia eta proiektuak mahai gainera atera behar ditudala erakustez gain, desikasten ikastea garrantzitsua dela erakutsi dit.

**Etorkizunari begira zein asmo daukazu?**  
Gaur egun gustura nago, baina ikasteko asko falta zaidala uste dut. Momentuz, horretan zentratu nahi dut neure burua, arlo ezberdinetatik ikasten eta profesionalki trebatzen. Etorkizunari begira, agentzien sektorea oso gustuko dut, baina nork daki? Pausoz pauso joan nahi dut, nire tokia zein den aurkitu arte.

Izen-abizenak: **HAIZEA BEDIAUNETA GARCIA**  
Herria: Elorrio  
Gradua: **Ikus-entzunezko Komunikazioa, Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean - Mondragon Unibertsitatea.**  
Zaletasunak: **Futbola**

# Andereak elkarteak Zirgari saria jaso du

Sariak emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alde eginiko lana aitortzen du



Zirgari Sarietako argazkia. BIZKAIA.EUS

**DURANGO • JOSEBA DERTEANO**

Bizkaiko Foru Aldundiak eta BBK-k Zirgari Sarien IX. aldia egin zuten aurreko asteko egunean Bilbon. Sariak emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alde eginiko lana aitortzen du. Hiru sari banatu zituzten eta eurretario bat Durangoko Andereak elkartearentzat izan zen; berdintasunaren aldeko erakundearen saria, hain zuzen ere. Ekitaldian, Andereak "kontzientziazioan, emakumeen ahalduzuean eta sentsibilizazioan" eginiko lana azpimarratu zuten. "Agerpen handia du erakunde publikoetan, eta lurraldeko eta tokiko sareetan parte hartzen du", gaineratu zuten. Begoña Murgialdayk Ohorezko Saria jaso zuen, eta 'Mujeres con Ciencia' blogak berdintasunaren aldeko proiektuarena.

## Politikan

Jesica Ruiz Perez  
PSE-EE



### Hitzetatik ekintzetara

Joan den martxoaren 8an, berri ere, emakumeok kalera atera ginen gure eskubideak defendatzera eta berradieraztera. Aurten, gainera, Andraguneak 15 urte bete ditu. Beste behin ere, zaintzak erdigunean jartzeari aldarrikatu dugu, oso lan feminizatuak baitira.

Udalak ez du eskumen askorik arlo honetan, baina Durangotik lanean ari gara hori hobetzeko. Hona hemen adibide argi bat: Durangoko Udalak lehen aldiz eskainiko du mendekotasuna duten pertsonen gizarte erakundeetan gizarte eta osasun arreta emateko ikastaroa, profesionaltasun-ziurtagiria lortu nahi dutenentzat. Ikastaroaren helburua da parte hartzaileei eskatzen zaizkien ezagutzak ematea, prozeduren bidez, gaitasunak egiaztatuz eta ziurtagiria lortuz.

Ikastaroa gizarte eta osasun arloan mendekotasuna duten pertsonen arreta ematen ikasteko izango da, bai eta haien autonomia pertsonala eta ingurunearekiko harremanak mantendu eta hobetzeko prozedurak aztertze ere.

Programa hau etxeko zaintza partikularren sektorean profesionaltasun-ziurtagiria lortzeko dituzten arazoei erantzuteko sortu da. Hori dela eta, helburua da bide ez-formalaren bidez lortzen laguntzea, enplegarritasuna eta ematen dituzten zerbitzuen kalitatea hobetzeko tresna gisa.

Lehen aldi honetan 12 plaza muga egon da eta 50 izen-emate inguru jaso ditugu. Horien %90 emakumeak izan dira. Horrek adierazten du ikastaro hau beharrezkoa dela eta gehiago egin beharko ditugula.

Hau bai dela hitzetatik ekintzetara igarotzeko adibide garbia.

## Durangaldea asteen

### 26 urteko kondena bete eta gero, Garces preso otxandiarra aske geratu da

**OTXANDIO** | Etxeraterik jakinarazi duenez, Iñaki Garces Beitia preso otxandiarra aske geratu zen martitzenean, 26 urteko zigorra bete eta gero. 2017an bere zigorraren hiru laurdenak bete zituen. 2021eko udaberrian Basauriko espetxera hurbildu zuten, Zuerako espetxetik. Iazko martxoaren 27an baldintzapean aske utzi zuten.

### Durango pantaila erraldoi bat ipiniko dute Landako Gunean, Errege Kopako finalerako

**DURANGO** | Athleticen eta Mallorcaren arteko Errege Kopako finala lagun artean bizitzeko aukera eskainiko du Durangoko Udalak. Apirilaren 6an pantaila erraldoi bat ipiniko du Landako Gunean. Sarrera doakoa izango da eta 3.000 lagun inguru sartu ahal izango dira eremuan. Ateak 21:00etan zabalduko dituzte; partidua 22:00etan hasiko da.

### Elorrion diru laguntza onartu dute kultur ondarea berritzeko lanak egiteko


**ELORRIO** | Otsailean eginiko osoko bilkuran, herriko ondasun higikor eta higiezinaren kultur ondarea berritzeko 2024an egin beharreko lanetarako diru laguntza deialdia onartzea erabaki zuen Elorrioko Udalak. Hori horrela, diru laguntza hau eskatu gura dutenek urriaren 30era arte egin dezakete eskaria.




### Bihar, martxoak 16, Udaberriko Festa ospatuko dute Abadiñon, Muntsaratzen

**ABADIÑO** | Bihar, martxoak 16, Udaberriko Festa ospatuko dute Muntsaratzen. Egitaraua 11:00etan hasiko da, artisautza azokagaz. 12:00etan txikiak aurpegi margoketa eta tailerrak egongo dira. 17:00etan DJ Kaktusek musika ipiniko du, 19:00etan J.M. Akustik eta Rodri & Ale & Felix arituko dira, eta 20:30ean DJ Danik ipiniko du musika. Muntsaratz Auzo Elkarteak antolatu du egitaraua, Barritzen Kultur Elkartearen laguntzagaz.

**Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:** Bixente Kapanaga 9, - IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOn irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarateak barne).



Ez baduzu hanka sartu nahi, sartu zure iragarkia IragarkiLaburrak.eus atarian



**iragarki laburrak .eus**

Hemen eta online



# Ingurumena 2024

## Martxoak 22, barikua

## Goizean

Ordutegia	Jarduera	Erakundea	Lekua
12:00	<b>Inaugurazioa.</b> Berdeago Azoka azokaren hamargarren edizioaren hasierako ekitaldia		Landako Gunea ongietorria
Arratsaldean			
Ordutegia	Jarduera	Erakundea	Lekua
16:15 - 17:00	<b>Eguzki energia flotarrien tailerra.</b> Eguzki energia flotarriaren abantailak eta arazoak	Landatu solar	Zirkulu Berdea Gunea
17:00 - 17:45	<b>Aurpegia zaintzeko sekretuak.</b> Aurpegia zaintzeko 4 urratseko tailerra	Ringana	Zirkulu Berdea Gunea
17:45 - 18:05	<b>Hitzaldia. Energia aerotermikoaren abantailak</b>	Lansolar	Zirkulu Berdea Gunea
18:30 - 18:50	<b>Redox seinaleztapen molekulen aurkezpena</b>	Julen Asea	Zirkulu Berdea Gunea
19:15 - 19:35	<b>Argiarekin bizi-kalitatea hobetzea.</b> Emozioak erregulatzeko, estresa murrizteko eta bizi-energia handitzeko kromoterapiaren erabileraren azalpena	Harmony Kromoterapia	Zirkulu Berdea Gunea

## Martxoak 23, zapatua

## Goizean

Ordutegia	Jarduera	Erakundea	Lekua
10:30 - 11:15	<b>Larruzko eskumuturrekoen tailerra.</b> Egin eskumuturreko bat eskuz eta ikasi dauden larru motak, beltzeko motak, etab.	TxiLux	Zirkulu Berdea Gunea
10:00 - 11:30	<b>Ehunak birziklatzeko tailerra.</b> Pasa zaituz Planet Dots Caravanetik Berdeago Azoka merchandisinga sortzeko. Merchandisinga joskitzaren eta ehungintza birziklatzearen bidez. Doako jarduerak da, publiko guztiarentzat. Ehun-hondakinak lehengai bihurtzen dira bertan.	Planeta Dots	Karabana Planet Dots
11:30 - 12:15	<b>Kamishabi tailerra haurrentzat.</b> Ipuin kontaketa, gero haurrek ipuinaren eszena bat marraztu eta Kamishibai batean (mahai antzerkia) aurkez dezaten.	Maguetes	Zirkulu Berdea Gunea
12:30 - 12:50	<b>20 urteko PEFC Ziurtagiria Euskadin.</b> Baskegur euskal zur basogintzaren sektorea ordezkatzeko duen elkarte profesionala da. Balio-kate osoa barne hartzen du: baso-jabetzak, baso-zerbitzuetako enpresak, enkante-saltzaileak, lehen eraldaketa enpresak (zerrak eta ontziratzea), pasta eta paperaren industria, bigarren eraldaketa-enpresak (altzariak, egitura, arotzeria, etab.) eta, katea ixteraino, baita bioenergia enpresak ere.	Baskegur	Zirkulu Berdea Gunea
13:00 - 13:45	<b>Benetan ba al dakizu zer edaten duzun?</b> Uraren Munduko Eguna dela eta, giza kontsumorako uraren garrantzia eta problematika aurkeztea. Arazoari irtenbide iraunkorra ematen diote, zure ingurua eta osasuna zainduz.	Erein	Zirkulu Berdea Gunea

## Arratsaldean

Ordutegia	Jarduera	Erakundea	Lekua
16:00 - 17:30	<b>Ehunak birziklatzeko tailerra.</b> Pasa zaituz Planet Dots Caravanetik Berdeago Azoka merchandisinga sortzeko. Merchandisinga joskitzaren eta ehungintza birziklatzearen bidez. Doako jarduerak da, publiko guztiarentzat. Ehun-hondakinak lehengai bihurtzen dituzte bertan.	Planet Points	Karabana Planet Dots
16:15 - 17:00	Talde bakoitzak rol, estrategia eta taktika desberdinak dituen kuadrilla bat ordezkatzeko du (korporazio kapitalistak, administrazio publikoa, herritartasun antolatua...) eta proposatutako testuingurura egokitzen diren estrategiak planifikatu behar dituzte. Estrategia irabazleak hurrengo hamarkadako etorkizuna markatzen du eta taldeak egokitu egin behar dira. Behin txandak amaituta, zer gertatu den eta zeintzuk aldaketa izan diren garrantzitsuenak espekulatu ahal izango dugu.	Naubis liburu-denda	Zirkulu Berdea Gunea
17:00 - 17:20	<b>Gehiago bizi, hobeto bizi.</b> Bioteknologia-enpresa, zeinetan Biow-ekin gehiago bizitzea eta hobeto bizitzea proposatzen dugun, gure bizitzako une bakoitzean energia batuz, gure zelulak birsortuz gazteago mantentzeko, hobeto lo eginez eta bizitza arnastuz.	Biow	Zirkulu Berdea Gunea
17:45 - 18:05	<b>María Teresa Vicent-en 'Justicia Ecológica y Derechos de la Naturaleza' liburuaren aurkezpena.</b>	Nakusarbe	Zirkulu Berdea Gunea
18:30-18:50	<b>3D prototipoen hitzaldia. Lanparak diseinatzeko prozesua.</b> Luminaria bat diseinatzeko eta fabrikatzeko prozesua, sortzen denetik saltzen jartzen den arte.	The Real Studio	Zirkulu Berdea Gunea

## Martxoak 24, domeka

## Goizean

Ordutegia	Jarduera	Erakundea	Lekua
8:30 - 9:00	Berataratzen direnen kontrola eta Ibaizabal ibaia garbitzeko material banaketa.	Bizkaia Gara	Berdeago Azokako sarrera
9:00 - 10:00	Ibaizabal ibaia garbitzea.	Bizkaia Gara	
10:15 - 11:00	Ibaizabal ibaiaren garbiketari jasotako hondakinekin eta hondartzetako garbiketari eta deriba-zuran jasotako plastikoeekin tailerra.	GoazenUp	Zirkulu Berdea Gunea
11:15 - 12:00	<b>Sare Berdeak topaldia</b>	Global Action Plan (GAP) Bizkaia	Zirkulu Berdea Gunea
12:15 - 12:45	<b>'Vigila el tiempo, Protege el clima del mañana' liburuaren aurkezpena + Klima hondatzeari buruzko hitzaldia</b>	Javier Lana	Zirkulu Berdea Gunea
13:00 - 13:45	Tailerra: Kalkulatu zure karbono aztarna.	Basque Centre for Climate Change (BC3)	Zirkulu Berdea Gunea

## Arratsaldean

Ordutegia	Jarduera	Erakundea	Lekua
16:00 - 17:30	MATER aurkezpen hitzaldia + antzerki parte-hartzailea ZABOR-ekin, itsas hondakinen mamua eta BIO biodibertsitatearen dama	Mater Barco Museo Ecoactivo	Zirkulu Berdea Gunea
17:00 - 17:45	Aurkezpena + Tailerra: Ba al dakizu benetan zer edaten duzun?	Erein	Zirkulu Berdea Gunea
18:00 - 18:45	Hondartza bilketa simulazioa	Ola sin Plástico	Zirkulu Berdea Gunea
19:00 - 19:45	<b>Tailerra: Musika eta Zure Begirada</b>	eCivis, herritartasun aktiboa sustatzeko elkarte	Zirkulu Berdea Gunea

# BERDEAGO AZOKA


ENERGY & NATURE 2024

Martxoak **22 / 23 / 24**  
**Landako Gunea, Durango**



Berdeago  
**energy**

eraginkortasun energetikoa



Berdeago  
**nature**

kontsumo arduratsua

### Babesleak



**ERRONKA  
GARBIA**  
INGURUMEN ALDETIK  
JASANGARRIA DEN  
EKITALDIA

[www.berdeagoazoka.org](http://www.berdeagoazoka.org)

# Berdeago Energy eta Nature: jasangarritasunaren eta energia berriztagarrien azoka hartuko du Landako Guneak

Martxoaren 22tik 24ra bitartean, efizientzia energetikoa, ingurumen berrikuntza eta kontsumo arduratsua izango dituzte berbagai Durangon

**DURANGO • JONE GUENETXEA**

Jasangarritasunaren inguruan Durangon antolatzen den Berdeago Azoka Durangoko Landako Gunera bueltatuko da urte biko etenaldiaren ondoren. Topagune honetan, arloko profesionalak eta norbanakoek bat egiten dute. Efizientzia energetikoa, ingurumen berrikuntza eta kontsumo arduratsua izango dira aurten ere ekimenaren ardatz nagusiak.

Jasangarritasunaren arloan azken urteetan gertatu diren aurre-pausoen aurrean, punterengo enpresen esperientzien berri izateko aukera izango da. Guztira, Nature arloan 31 stand ipiniko dituzte, eta Energy arloan 9.

Azoka martxoaren 22an hasiko da, 12:00etan, azokaren hamargarren edizioaren hasierako ekitaldiagaz. Arratsaldean, eguzki energia flotagarrien abantailak eta arazoak eztabaidatuko dituzte. Aurpegia zaintzeko sekretuak ere landuko dituzte, eta energia arotermikoaz ere berba egingo dute. Zapatuan, martxoak 23, Uraren



Aurreko edizio bateko argazkia.

Mundu Egunaren harira, edateko uraren inguruan zentratuko dira. Benetan ba al dakizu zer edaten duzun berbaldia emango dute. Ondoren, Maria Teresa Vicentek *Justizia Ekologikoa eta Naturaren eskubideak*

liburua aurkeztuko du. Zapatuko egitaraua lanparak diseinatzeko 3D prototipoen prozesuari buruzko berbaldiak itxiko du.

Berdeagoren ekimenen barruan, martxoaren 23an Ibaizabal

**Guztira, Nature arloan 31 stand ipiniko dituzte, eta Energy arloan 9**

erreka garbituko dute. Landako Gunearen sarreran ipini dute hitzordua, 08:30etik 09:00etara bitartean. Domekarako, besteak beste, pertsona bakoitzaren karbono aztarna kalkulatzeko tailerra antolatu dute.

# % 100 URA GARA

*Bizkaia etorkizunera egokituta zainduz,  
inbertituz eta mantenduz.*



**Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa**  
Consortio de Aguas Bilbao Bizkaia  
[www.consorciodeaguas.eus](http://www.consorciodeaguas.eus)





Karbono aztarna neutrora iristeko konpromisoa 2050. urterako

# EROSKI-K BERE KAMIOI ELEKTRIKOA AURKEZTU DU BIZKAIAN

EROSKI beste pauso bat eman du, eta hurbilago dauka 2050. urterako karbono neutraltasuna. Bilbon, kamioi elektriko bat jarri du zirkulazioan, orain bi urte Iruñean horrelako aurreneko ibilgailua aurkeztu zuenetik. Aurrerapen berri honekin, EROSKI ikertzen dihardu mugikortasun iraunkorrean dauden aukeren bideragarritasuna. Aurkezpen ekintza Arriagako antzokiko plazan izan da, eta bertan egon dira Mugikortasun eta Iraunkortasun arloko zinegotzi eta alkateorde Nora Abete, Energiaren Euskal Erakundeko zuzendari Iñigo Ansola, EROSKIren Osasun eta Iraunkortasun arloko zuzendari Alejandro Martinez Berriochoa, EROSKIren Garraio zuzendari Juanxu Aranbarri eta EROSKIren garraio eta banaketa arloko arduradun Cristina Lorenzo.

Kamioiak, 16,3 tona dituenak eta 14 palet eramateko gai denak, 211 kilometroko autonomia du osorik kargatuta dagoenean, eta soinurik ateratzen ez duelako eta inguruan ikusezina delako nabarmentzen da, diesel ibilgailu baten aldean. Renault Trucksek eraikia da, eta Renault E-Tech D 16 modelokoa. Aukera Logistica garraio enpresak kudeatzen du haren jarduera.

"Ezaugarri horiek direla medio, ibilgailu elektrikoak idealak dira garraiorako, salgaiak hiriguneetara eramateko eta ingurunean eta zona horretako herritarrengan egiten dugun inpaktua gutxitzeko", esan du EROSKIren Garraio zuzendariak, Juanxu Aranbarrik. Kamioiak lau bidaia egingo ditu astelehenetik larunbatera goizaldetik

goizeko lehen ordura. Hala, Zornotzan eta Etxebarriin EROSKI dituen plataformetan iraukitzen diren salgaiak eta elikagai lehorrak zamatuko ditu, eta bost supermerkatutan utziko ditu: bi Bilboko erdialdean eta bana Deustuko, Zorroazako eta Santutxuko auzoetan. Aldez aurretik analizatuta dago ibilgailuak nolako bidea egingo duen; horretarako, kontuan izango ditu fabrikatzaileak markatutako efizientzia eta errendimendu irizpideak. Aktibitatea monitorizatu egingo dute EROSKI Taldearen Garraio arloko Garapen eta Diseinu sailaren bulegoetan, ikusteko nolako errendimendua duen eta nola hobe daitekeen datuak hartuta eta aztertuta. Bestalde, Nora Abete Mugikortasun eta Iraunkortasun arloko zinegotzi eta alkateordeak hauxe gogorarazi du: "Gure helburua da hiria berdeagoa eta irisgarriagoa egitea eta ingurumenarekin errespetutsua izatea. Hiria bizitzeko atseginagoa izatea, eta iruditzen zaigu EROSKIren ibilgailu elektriko berri honekin horretan laguntzen dugula". Energiaren Euskal Erakundeko zuzendariak, berriz, Iñigo Ansolak, honela esan du: "Kamioi hau lanean jarrita salgaien garraio astunera ekarri dugu mugikortasun elektriko. Mugikortasun elektrikoari bultzada emanda, irmoki lagunduko dugu EAEko garraio sektorearen deskarbonizazioan (bai epe laburrera eta bai epe erdira begira) eta 2030ean jarrita ditugun helburuak betetzen. EROSKI gaur aurkeztutako proiektua bat dator EAEn energia trantsizioa bultzatzeko eginda dugun errepede maparekin".

## Aurrera doa karbono neutraltasuna lortzeko bidean

Lean & Green-en lehenengo izarra eskuratu zuen iaz azken lau urteetan CO2 isuriak %30 jaisteko helburua erdietsita bai logistika prozesuetan eta bai garraioan. Lean & Green da Espainian ingurumen arloan dagoen programa bakarra ardatza jartzen duena horniketa kateko fase logistikoko emisioen murrizketan. Ardatz iraunkor estrategikoa da; izan ere, Trantsizio Ekologiko eta Erronka Demografiakorako Ministerioko datuen arabera, garraioan isurtzen dira Espainiako emisio guztien %30.

Bigarren kamioi elektriko honek lagunduko du finkaturiko helburua erdiesten, eta hirugarren Lean & Green izarra eskuratzen, 2015etik emisioak %35 gutxituta. "EROSKI %42 baino gehiago murriztu du karbono aztarna 2017az geroztik, eta horrekin 178.737 tona CO2 baliokide isurtzeari utzi zaio, hau da, gutxi gorabehera 95.000 autok baino gehiagok 10.000 km eginda sortzen dituzten isuriak", esan du Alejandro Martinez Berriochoak, EROSKIren Osasun eta Iraunkortasun arloko zuzendariak. "2050. urtean enpresa neutro izan nahi dugu berotegi efektuko gas isurietan, eta hau mugarri garrantzitsua da errepede mapa horretan. Pauso aipagarria, gure sektorean zeresan handia duen eremu batean gainera: logistikan", erantsi du. Espainiako Estatuan elikagaien banaketan diharduten enpresen artean, EROSKI izan da lehena karbono neutraltasunaren helburua ezarri duena, eta erronka horri jarraituz, bat egin du Marketin Jardunbideetarako eta Elikagaien Negoziorako Jokabide Arduratsuen Kodearekin, zeina Europako Batasunak sustatu duen.

## Ingurumenaren gaineko eragina txikitzeko ekimenak

EROSKI konpromiso sendoa du ingurumena errespetatzeko, eta ildo horretan hainbat ekintza egiten ditu produktuak hobetzeko, baita prozesuak eta kontsumitzaileen eta langileen sentsibilizazioa ere. Horrela, EROSKI %40 gutxitu ditu 1. eta 2. irismena duten berotegi efektuko gasak 2017tik, produktu ekologiko berriak merkaturatu ditu, eta orain 1.600 erreferentzia baino gehiago ditu, animalien ongizatearen zigilua ezarri die bere haragi zuri guztiei, jarraitu egin du plastikoa murrizten eta hobetu egin du ontzien birziklagarritasuna, 120 erreferentzia baino gehiago ditu ekodiseinua bidez landuak eta sentsibilizatzeko ekimenean parte hartu du, besteak beste WWF erakundearen Planetaren Ordua izenekoan.

Horretaz gainera, iaz, EROSKI Leed Gold ziurtagiria atera zuen Gasteizko Lakua-Arriagan duen dendagatik, zigilu bat ziurtatzen duena eraikina iraunkorra dela eta ekofizientziaren estandarrik betez egina dagoela. Sare komertzial osoan dagoen supermerkatu iraunkorra izango da, eta bere dendetarako energia eredu berri bat markatuko du.



# “Modu jasangarrian aurrera egitea bermatzen duten formulak behar ditugu”

Berdeago Azoka, Jasangarritasunaren Euskal Azoka, egingo dute Durangoko Landako Gunean martxoaren 22tik 24ra



**Javier Sanchez Garcia**

Berdeago Elkartearen koordinatzailea

**BARAKALDO | 1966**

## BERDEAGO • E.H./A.B.

lazio etenaldiaren ondoren, Berdeago Azoka berrikuntzekin bueltatuko da Durangora. Hainbat ekitaldiz osaturiko egitaraua prestatu dute, jasangarritasuna eta ingurumena erdigunean ipinita.

Aurten berriro ere izango dugu Berdeago Azoka Durangon. Zelakoa izaten ari da buelta?

Ilusio handiagaz bueltatu gara, egia esanda. Pandemiaren ondoren, apur bat estropezu eginda gentozen. Urtarrilaren amaieran edo otsailen antolatu izan dugu azoka, baina 2022ko neguan oraindino ere beldur apur bat zegoen eta maiatzera atzeratu genuen. Bada,

data aldaketaren eta eguraldi zoragarriaren eraginez apur bat ahuldu egin zela ikusi genuen, eta iaz ez genuen antolatu. Aurten hainbat aldaketa sartzeko aprobeixatu dugu. Aldaketa nagusia Energy eta Nature azokak batzea izan da. Horrela, itxura gehiago eman gura izan diogu ekitaldiari, eta publikoari aukera eman azoka biak asteburu bakarrean bisitatzeko. Bestalde, ekitaldien kudeaketa Denire enpresaren eskura utzi dugu, profesionalago egiteko.

**Zertan bereizten dira Berdeago Energy eta Berdeago Nature?**

Energy eraginkortasun energetikora eta ingurumen berrizkuntzara bideratuta dago gehiago. Bisitari

partikularrari zuzenduta dago, baina baita publiko profesionalari ere. Etxeen isolamendurako (efizientzia handiko leihoak, galdarak...) edo ibilgailu elektrikoentzako irten-

**Erdiguneko plaza handi bat ipiniko dugu, Zirkulu Berdea Gunea izenekoa. Ekitaldi guztiak bertan batuko ditugu**

bideez ari gara, adibidez. Nature, oster, kontsumo arduratsura dago bideratuta (elikadura, janzkera, bidaiak, artisautza...). Hala ere, kon-

tsumo arduratsuz ari garenean ez gara bakarrik bioproduktuez ari. Hori garrantzitsua da, baina baita 0 kilometroko produktua ere, tokiko garapenean laguntzen duen produktua.

**Prestaturiko egitarauan, zein ekitaldi nabarmenduko zenuke?**

Erdiguneko plaza handi bat ipiniko dugu, Zirkulu Berdea Gunea izenekoa. Jarduera guztiak bertan batuko ditugu eta askoz ere garrantzi handiagoa izango du. Askotariko tailerrak eta dinamikak egongo dira bertan; berbaldiak eta liburu aurkezpenak ere bai. Gainera, bisitariak aukera izango dute euren kezka eta nahiak islatzeko; Desioen Arbola bat sortuko dugu. Domeka-

rako, bestalde, Sare Berdeak Eguna antolatu dugu. Herritarren kezkei erantzuteko, Bizkaian lan egiten duen boluntario sarean landu diren irtenbide eta proposamen berriak azalduko dira. Uraren Munduko Eguna ere bada domekan, eta autobusak ipiniko ditugu Arriandiko araztegia bisitatzeko. Bestalde, Ibaizabal errekarren garbiketa egingo da, Bizkaia Garak koordinatuta. Ondoren, zaborren inguruko tailerra emango dugu. Antzerkia, musika tailerra eta bakoitzaren karbono urratsari buruzko tailerra ere egingo dira, besteak beste.

**Herritarren kezkei erantzuteko, Sare Berdean landu diren irtenbide eta proposamen berriak azalduko dira**

**Digitalizazioa, auto elektrikoa, parke eolikoak, ingurumenagazko ardura.... badago halako kezka bat gizartearen. Zeintzuk dira etorkizunera begirako erronkak?**

Horrek halako kezka sortu du, bai, eta kontsumo gizarte modura, sistema kapitalista neoliberalen oinarrituriko gizarte modura, gauzak aldatu egin behar ditugu. Zein den orain erronka? Modu jasangarrian aurrera egitea bermatzen duten formulak topatzea. Formula horiek ekonomikoki bideragarriak izan behar dute, ingurumenari dagokionez zuzenak, eta sozialki konprometituak. Eta gizarteak erabaki beharko du proposaturiko irtenbide horiek balio duten ala ez. Gure espaziorako gura ditugun erabilera eta gozamen ereduak zeintzuk diren jakin behar dugu.

**Berdeagoren moduko azokek zelan laguntzen dute eredu aldaketa horretan?**

Dauden alternatibak erakutsita. Aurrerago aipatu ditugun kezka horiei egingarriak diren neurriekin erantzun behar diegu. Gainera, bakoitzak egiten duen ahalegina ez dela bakarrik ikusi genezake Berdeagoren moduko azoketan. Hori erakustea garrantzitsua da.

**ZUNTZ MOLDATUZKO ONTZI BIODEGRADAGARRI ETA BIRZIKLAGARRIAK**



**cemosa**

GRUPO CELULOSAS MOLDEADAS, S.A.

[www.soul-cemosa.es](http://www.soul-cemosa.es)

Autonomía, 2 - ATXONDO (Bizkaia)  
Tel.: 94 623 17 17 - Faxe: 94 623 17 99



# “Diseinuen atzean matematika apur bat eta proportzioen zainketa bat ere badago”

The Real Studioko Jose Realek berbaldia emango du martxoaren 23ko zapatuan Berdeago azokaren barruan



**BERDEAGO • JOSEBA DERTEANO**

**Sormen senari arkitekturako jakintza gehitu, eta The Real Studio da emaitza. Plastikozko birziklatuagaz lan egiten dute eta diseinuak 3Dko inprimagailuan inprimatzen dituzte. Lanparak dira euren produktu izarretariko bat, H-Lamp lanpara kasu. Jose Real The Real Studioko sortzaileak berbaldia emango du Berdeago azokan.**

**H-Lamp lanparak harrera ona izan du.**

Bai, sortu zenetik bertatik harrera ona izan du, egia esanda. 2013an, Madrid Design jaialdirako aukeratu zuten eta Picalagartos jatetxeko gelak argitu zituen jaialdiak iraun zuen artean.

**Idazmahai antolatzeke duzun diseinua ere deigarria egin zait.**

Manex Bilbaogaz elkarlanean eginiko proiektua da. Bere zirriborroa abiapuntu hartuta gauzatu genuen. Gustura gaude emaitzagaz. Asteon bertan, Cuencako (Gaztela-Mantxa) eta Salouko (Katalunia) denda banatara eskaerak bidali ditut. Lankidetzan aritzea gustuko dut; besteengandik ikasi egiten da eta, beharbada, besteek ere ikasiko dute nigandik. Esaterako, Bilboko Alejandro Gonzalez zeramikiariagaz lankidetzan nabil orain. Besteengana zabaltzea garrantzitsua eta interesgarria dela uste dut.

**Arkitektoa zara eta arkitekto berba buruan dugunean eraikin handiak etortzen zaizkigu gogora.**

XX. mende hasieran, arkitektoak denerik diseinatzen zuen, ez etxeak bakarrik; baita lanparak ere, atek, atetako heldulekuak eta abar. Gerora mundu biak, diseinatzaileena eta arkitektoena, banatu egin ziren, baina azkenaldian berriro elkar hurreratzen ari dira eta arkitekto asko diseinugintzan gabiltza.

**Diseinatzerako orduan, zeintzuk alderdi hartzen dituzu kontuan?**

Niri, etxean edo ofizinan, zer izatea gustatuko litzaidake? Eta zelakoak izatea gura nuke? Galdera horiek egiten dizkiot neure buruari. Horixe da abiapuntua. Gero, buruan duzuna irudikatu beharra dago. Lehenengo papelean, eta ondoren ordenagailuan. Hilean behin arkitektura eskolak ematen ditut Madrilgo Nebrija unibertsitatean, eta ikasleei beti esaten diet ordenagailuaren aurretik arkatza datorrela. Azkenik, arkitektoa naizen aldetik, proportzioak zainketa gustatzen zait. Beharbada jendeari horregaitik ari zaizkio gustatzen gure produktuak; diseinuen atzean matematika apur bat eta proportzioen zainketa bat ere badago.

**Plastikozko birziklatua darabilzue lanak egiteko.**


Bai, ez nuen plastiko toxikorik erabili gura, hori argi nuen. Urtebete daramat plastikozko birziklatuagaz ia bakarrik lan egiten, edo birziklatu daitezkeen plastikozkoagaz.

**Ekoizpenari dagokionez, 3Dko inprimagailua izateak besteen menpe ez egotea ahalbidetzen dizu?**

Bai. Nire lehenengo ardura inoren menpe ez egotea zen. Horregaitik inprimatzen dut 3Dko inprimagailu batean. 3Dko inprimatzea ez da berria. Ikasleei 3Dko lehenengo inprimagailuaren argazkia ipini, eta zein urtekoa den galdetzen diet. Uste duten baino lehenagokoa da, 1983koa, hain zuzen ere. Nahiko aspaldikoak dira. Harrezkero, teknologia asko hobetu da eta prezioa ez da hain garestia. Honek interesgarria den beste mugimendu bat sortzea ekarri du: batzuek diseinua salgai edo doan ipintzen dute Interneten, eta gura duenak diseinua eskuratu eta bere etxean inprimatu dezake.

**Zeri buruzkoa da Berdeago azokan emango duzun berbaldia?**

Berbaldian, nire lanpara biren diseinua konparatuko dut. Batek oso ondo funtzionatu du merkatuan, eta besteak ez hain ondo. Horren arrazoiak azaltzen ahaleginduko naiz.



Goian, Jose Real, bere diseinu batez. Behean, H-Lamp lanpara. PICALAGARTOS / SOFY SODA

**Smurfit Kappa**  
Central forestal

**+55 urte**  
EUSKADIKO  
PINUDIAK  
ZAINTZEN

**Smurfit Kappa**  
Nervión

# Okm:

*batzen gaituen  
distantzia*

---

## Abantailak

### EUREKA! ZIENTZIA MUSEOA

- %10eko deskontua museoko eta planetarioko sarrera orokorrean, bai eta bietarako balio duen sarrera konbinatuan ere.

### HITZ LIBURU-DENDA

- %10eko deskontua euskarazko liburuetan.

### HONTZAEXTREM ABENTURA PARKEA

- %15eko deskontua sarreran

### IURRETA KOPISTEGIA

- %5eko deskontua eskola eta bulego materialean.
- %5eko deskontua musika, opari eta liburuetan.
- Ez da bateragarria beste eskaintza batzuekin.

### KIROL ERROTA GIMNASIOA

- Bazkide berriei matrikulazioa doan.

### LANDAKO OPTIKA

- %15eko deskontua eguzkitako betaurrekoetan, audiologian, ikusmen urritasunean eta armazoi eta lenteetan.

### MANCISIDOR 1866 BITXI-DENDA

- % 5eko deskontua 100€ra arteko erosketetan.
- %10eko deskontua 100€tik gorako erosketetan.

### NATURALKI BELARDENDA-EKODENDA

- %5eko deskontua produktu guztietan.

### URRIKE LIBURU-DENDA

- %5eko deskontua liburuetan
- % 10eko deskontua papergintzan

### LA PERLA

- %15eko deskontua forman jartzeko talaso zirkuituan
- %10eko deskontua osasun, lasaitasun eta edertasuneko banakako tratamenduetan

### NAIA GORROÑO HORTZ KLINIKA

- %25eko deskontua garbiketa eta radiografietan

### HONTZA MUSEOA

- %50eko deskontua sarreretan



**> anboto  
kide**

#### **URALDE HORTZ KLINIKA**

- %25eko deskontua garbiketa eta radiografietan

#### **EILEKE**

**Psikologia, neuropsikologia, logopedia eta psikomotrizitatea**

- %15 eko deskontua saio solteetan

#### **TABIRA BITXIDENDA**

- %5eko deskontua 100€ra arteko erosketetan
- %10eko deskontua 100€tik gorako erosketetan

#### **PSIKOLOGIA AMOREBIETA**

- %20ko deskontua zerbitzu guztietan

#### **KEINU OPTOMETRIA ZENTROA**

- Armazoizko lenteetan eta eguzkitako betaurrekoetan %10eko deskontua

#### **GAU-TU**

- Dendako ehun guztietan %10eko deskontua, eta 500 €-tik gorako erosketetan %5eko deskontua atsedeen sistemetan.

#### **SOLOZABAL ALTZARIAK**

- Denda eta erakusketako produktuetan %10eko deskontua (etxeko aire-gozagarrietan izan ezik)

**Berria!**

#### **URKIOIL GASOLINDEGIA**

- Izurtzako eta Otxandioko Urkioil gasolindegietan 3 zentimo litroko deskontua.

**Berria!**

#### **ETXEDREAMS**

- %10eko deskontua dendako produktu guztietan



***Egin zaitez ANBOTOKIDE  
eta baliatu abantailez!***



## 'Nola edo hala aterako gara'

ANTZERKIA IURRETA :: Martxoak 15

### Umerez jositako bidaiaria ahaztezina egiteko gonbita Iurretan

Umerez, musikaz eta originaltasunez osaturiko *Nola edo hala aterako gara* ikuskizuna taularatuko du Alazne Etxebarriak, gaur, Iurretako Ibarretxe kultur etxean. Aktore donostiarrak Mari Luz hegazkin-zerbitzariaren azalean ipiniko da eta ikuslea bidaiaria ahaztezin bat egitera eramango du. Izan ere, Mari Luzek mingainean ez du herdoilik tabuak hausteko, ezta esperimentatzea egokitu zaiz-

kion balentria eta gorabeherak kontatzeko ere. Emanaldia 19:00etan hasiko da.

Etxebarriak *Goazen!* eta *Allí abajo* telesailetan parte hartu du. Hala ere, antzerkia du lan arlo nagusia. *Cyrano* (Echo en Casa), *Ene ba!* (Txalo Produzioak) eta *Roman eta Julieta* (Borobil) antzezlanetan ere aritu da. Eta *Fake News*, *Elecciones y punto* eta *Barre Libre* umore saioetan ere bai.

### Martxoaren 15ean

**ABADIÑO antzerkia**  
**'Hiru kortse, azukre asko eta brandy gehiegi'** (Kamikaz & Ttak), 18:30ean, Errota kultur etxean.

**ELORRIO musika**  
**The Cherry Boppers**, 22:00etan, Arriolan.

**IURRETA herri kirolak**  
**Herri kirolak: sokatira, txorokil batzea eta txinga eroatea**, 18:00etan, Askondon.

### Martxoaren 16an

**ABADIÑO jaia**  
**Artisautza azoka**, 11:00etan, Muntzaratzen.  
**Aurpegi margoketa eta tailerrak**, 12:00etan.  
**DJ Kaktus**, 17:00etan.  
**J.M. Akustik + Rodri & Ale & Felix**, 19:00etan.  
**DJ Dani**, 20:30ean.

**ABADIÑO bertsoak**  
**Bertso saioa: Amets Arzallus, Oihana Bartra, Erika Lagoma, Sustrai Colina eta Bittor Altube**, 20:00etan, Errota kultur etxean. Gai-jartzailea: Itxaro Juaristi.

**BERRIZ antzerkia**  
**'Yerma' (La Dramática Errante)**, 19:00etan, Kultur Etxean.

**DURANGO kontzertua**  
**Abesti Feministen VI. Lehiaketako finalistak**, 19:00etan, Plateruenean.

**DURANGO musika**  
**San Patrizio egunaren ospakizuna Herri Maite akordeoi taldeagaz**, 19:30ean, Caledonia Pub tabernan.

**IURRETA musika**  
**Irati Otadui**, 18:00etan, Amatza auzoan.

**IURRETA irteera**  
**Bizikletan irteera Landara**, 09:00etan, Iurretako Txirindulari Elkarteak antolatuta.

**ZORNOTZA antzerkia**  
**'Mamuka' (Erilare)**, 17:30ean, Zornotza Aretoan.

### Martxoaren 17an

**DURANGO antzerkia**  
**'MrBo' (Marie de Jongh Teatro)**, 18:00etan, San Agustin kulturgunean.

**ELORRIO antzerkia**  
**'Iratxoak eta basoko sorginak' (Gookapi)**, 17:00etan, Arriolan.

**IURRETA irteera**  
**Bizikletan irteera Ondarroara**, 09:00etan, Iurretako Txirindulari Elkarteak antolatuta.

**MALLABIA kontzertua**  
**Durangaldeko 68. Txistulari Eguna**.  
**Kalejira**, 09:30etan.  
**Kontzertua**, 12:00etan Andra Marian.

**ZORNOTZA musika**  
**XLIII. BBK Abesbatzen Kontzertua: Xuxurlari + Andra Mari + Lagun Artea**, 12:00etan, Zornotza Aretoan.

### Martxoaren 17ra bitartean

**DURANGO erakusketa**  
**'Arketipoak' (Jenni Alvarado)**, Arte eta Historia Museoa.

### Martxoaren 18ra bitartean

**ZORNOTZA erakusketa**  
**'Emakumeak aberria eginez'**, Zelaieta Zentroan.

### Martxoaren 19an

**DURANGO berbaldia**  
**Operari buruzko solasaldia Carlos Imaz konpositore eta pianista ezagunaren eskutik**, 19:00etan, Kurutze Santu Museoa.

**IURRETA dokumentala**  
**'Aire!'**, 18:30ean, kultur etxean. Izena eman behar da.

### Martxoaren 20an

**ABADIÑO ipuinak**  
**Ines Bengoa ipuin kontalaria (4-8 urte)**, 17:00etan, Errota kultur etxean.

### Martxoaren 21ean

**ABADIÑO kontzertua**  
**Liher + Irigo**, 19:00etan, Isiotu elkartearen lokalean.

**DURANGO antzerkia**  
**'Euskaldungak' (Tautelak)**, 19:00etan, San Agustin kulturgunean.

**IURRETA poesia musikatua**  
**'Vagabunda viene con sus charlas febriles, con su lengua defensora (Koro Benito eta Verónica De Cos)**, 19:00etan, kultur etxean. Izena eman behar da.

**ZORNOTZA berbaldia**  
**'Euskal ahozko ipuinak' (Hizlaria: Jon Mentxakatorre, Santi Onaindia bekaren irabazlea)**, 18:30ean, Zelaietako Auditoriumean. Ondoren, herritarrak ipuin kontaktetan.

ANBOTOk agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi [agenda@anboto.org](mailto:agenda@anboto.org) helbidera edo deitu **946 232 523** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.

## Zinema

:: **Berriz**  
KULTUR ETXEA

• **¡Corre, Tiger, corre!**  
barikua 15: 17:00  
domeka 17: 17:00

:: **Durango**  
ZUGAZA ZINEMA

• **Tratamos demasiado bien a las mujeres**  
barikua 15: 18:30 / 21:00  
zapateria 16: 19:15 / 21:30  
domeka 17: 19:30  
astelehena 18: 18:00 / 20:15  
martitena 19: 18:00 / 20:15  
eguztana 20: 19:00

• **Clan de hierro**  
barikua 15: 21:00  
zapateria 16: 20:30  
domeka 17: 18:00  
astelehena 18: 20:15  
martitena 19: 20:15  
eguztana 20: 19:00

• **How to have sex**  
barikua 15: 18:30 / 21:00  
zapateria 16: 17:00 / 19:15  
domeka 17: 20:30  
astelehena 18: 18:00  
martitena 19: 18:00  
eguztana 20: 19:00

• **Stella. Victima y culpable**  
barikua 15: 18:30  
zapateria 16: 18:00 / 21:30  
domeka 17: 18:00 / 20:30  
astelehena 18: 18:00 / 20:15  
martitena 19: 18:00 / 20:15

• **Kung Fu Panda 4**  
zapateria 16: 17:00  
domeka 17: 17:15

:: **Elorrio**  
ARRIOLA ANTZOKIA

• **Bizkarsoro**  
zapateria 16: 20:00  
domeka 17: 20:00  
astelehena 18: 20:00

:: **Zornotza**  
ZORNOTZA ARETOA

• **Ferrari**  
barikua 15: 20:00  
domeka 17: 20:00  
astelehena 18: 20:15

• **El fantasma de Canterville**  
domeka 17: 17:00

• **Samsara (JB)**  
martitena 19: 20:15

# Oraindik ez zara ANBOTOko whatsapp taldeko kide?

Durungaldeko azken albistek jaso gura badituzu batu Anbotoko whatsapp taldera



***Bidali 'ALTA'***

***688 635 041***

***telefono zenbakira***

\* Izan zaitetz berriemaile ere.  
Bidali zure argazki eta bideoak

**anboto**



## “Dantza euren pasioa da eta lehiaketetan ikuspegi hori zabaldu egiten dute beste eskola batzuetako ikasleak ikusita”

L'Atelier eskolak Dantzaren Nazioarteko Eguna ospatuko du apirilaren 27an, Durangoko Landako Gunean

**DANTZA • JONE GUENETXEA**

Durangoko L'Atelier dantza eskolako guraso talde batek Koreo dantza elkarte sortu du. Lehiaketetan dabiltzan gazteen bidaietako gastuak arintzea da helburua. Asteburu honetan bertan, Burgosen eta Asturiasen lehiatuko dira. Hurrengo erronka

Dantzaren Nazioarteko Eguna ospatzeko Landako Gunean egingo duten jaialdia izango da. Oiane Azkonizaga L'Atelier eskolako arduraduna, Uma Bracaglia ikaslea eta Haizea Corpa Koreo elkarte kidea elkarritzatatu ditu ANBOTOK.

**Zelan sortu da elkarte?**

**Haizea Corpa:** Elkarteia iaz sortu genuen, maiatz inguruan. Apurka-apurka, bazkietza bultzatu genuen lehenengo, batez ere lehiaketetara doazen ikasleen artean. Egia esan, bazkietzea progresiboa izan da. Orain, hainbat ekintza ipini dugu martxan dirua biltzeko.

**Zein da elkartearen helburua?**

**Oiane Azkonizaga:** Kanpoko lehiaketetara bidaiatzeak gastuak dakartzta, eta gastu horiek familiei eragiten zien gehienbat. Familia horiei ahalegin horretan laguntzea da helburua.

**Zenbat bazkide ditu elkarteak?**

**H.C.:** Gaur egun 90 bat bazkide gara. Baina bazkide gehiago egiten gabilta.

**Zer antolatzen zabilzate elkartearen?**

**H.C.:** Beste kirol batzuetan, futbola, saskibaloia, eskubaloia zein beste kirol bat izan, laguntzak dituzte

arlotan publiko zein pribatutik, edo antolatuta dauden klubek ere lagundu egiten diete. Ikusten genuen dantza arloan ez zegoela horrelako babesik. Ildo horretatik, poltsak sortu ditugu, eta baita beste material batzuk ere. Orain errifak saltzen hasi gara. Dantzaren Nazioarteko Egunaren harira, zenbait babesle aurkitu dugu, eta euren emandako sariak zozkatuko ditugu. Egun horretan bertan, Landako Gunean egingo dugun jaialdian taberna ipiniko dugu eta materiala salduko dugu. Eta beste ideia batzuk ere baditugu.

**Dantzaren Nazioarteko Eguna aipatu duzue. Durangon ekitaldi erraldoia prestatzen duzue.**

**E.P.:** Geroago eta leku gehiagotan ospatzen den eguna da. Guk orain 16 urte ekin genion Durangon, eta ekimena hazten joan da. Orain urte bi diru bilketarako espazioak sortzen hasi ginen, ikasleei laguntzeko.

**Iaz taberna ipini zenuten.**

**H.C.:** Bai, eta aurreko urtean ere bai. Taberna ipintzen dugun hirugarren aldia izango da. Iaz ogitartekoak eta mahaiaik ere ipini genituen, eta aurten ostalariekin berba egin dugu pintxoak, tortillak eta horrelakoak salgai ipintzeko. Denerik izango dugu egun osoan zehar.

**Zenbat lagunek parte hartzen dute ekimen honetan?**

**O.A.:** Txikitxoenetatik hasita, 3 urtetxogaz hasten dira. Oso polita da adin guztietako dantzariak elkarren ondoan ikustea. Urte osoko momentu bakarra da zentroko ikasle guztiak batzeko eta elkar ikusteko. 3 urteko ume bat eta 65 urteko emakume bat ikusi ditza-kezu dantzan. Horixe da helburua, dantza kalera ateratzea, dantza mundu guztiarentzat delako.

**Lehiaketetan parte hartzeak zein ekarpen egiten dio dantzari baten ikasketa prozesuari?**

**O.A.:** Balleteko, dantza garaikideko

eta dantza urbanoko lehiaketetan parte hartzen dugu. Bizipen handia da eskuratzen dutena. Euren pasioa lantzen dute, dantza, eta horren barruan euren ikuspegi zabaltzen dute lehiaketetan beste eskola batzuetako dantzariak ikusita. Lan egiteko beste modu batzuk ezagutzen dituzte, beti ere dantzari lotuta. Euren artean batasun handia sortzen da bidai egiterakoan, egun asko pasatzen dituztelako elkarregaz. Elkarbizitzak asko batzen ditu, eta balio asko lantzen dituzte.

**Asteburuan kanpora zoazte.**

**O.A.:** Dantza garaikidekoak Burgosera doaz, eta handik Asturiasera doaz, dantza klasikokoak Asturiasen izango garelako domekan. Hurrengo asteburuan, dantza garaikidekoak World Dance Cup-era joango dira, Zaragozara. Hortik aurrera, ia astebururo bidaiatuko dugu; Madrilera, Avilara, Kanaria Handira...

**Beste bidai batzuk urrunago ere egin dituzte.**

**O.A.:** Vive tu Sueño txapelketan, esate baterako, Roman eta Parisen izan gara, eta aurten Kanaria Handira joango gara.

**Lehiaketetan parte hartzen duzue. Zelako esperientzia izaten da?**

**Uma Bracaglia:** Niretzat lehiaketak dantza mundua ezagutzeko beste modu bat dira. Gauza bat da etxeko eszenatokietan dantza egitea, zure taldekideen gurasoen aurrean, eta beste bat da kanpora joatea leku berriak ezagutzera eta beste pertsona batzuek beste ikuspuntu batzuekin zu dantzan ikustea.

**Zein lehiaketa gogoratzen duzu bereziki?**

**U.B.:** Iaz Global Dance Openera joan ginen, Avilara, eta aurrekoak baino gaxagoa izan zen, beste leku askotako dantzariak etorri zirelako. Kanadako talde handi bat joan zen, oso maila handikoa. Oso polita izan zen.





# 'Mikeldi' izeneko zurezko eskultura handiak Madalenosten 2025eko urtarrilera arte jarraituko duela adostu dute

Eskultoreen Elkartearen "ahalegina eta ekarpen kulturala" aitortuta, Durangoko Udalak "baldintza jakin batzuekin" onartu du eskaera



'Mikeldi' eskultura Madalenosten dago.

## ESKULTURA • JOSEBA DERTEANO

'Mikeldi' izena duen zurezko eskulturak Madalenosten jarraituko du 2025eko urtarrilera arte. Halantxik adostu dute Durangoko Udalak eta Eskuahaldunak Eskultoreen Elkarteak, udalak ohar

batean jakinarazi duenez. Obra "iragankor" modura sortu zuten eskultura 2025eko urtarrilera arte mantentzeko baimena eskatu zion eskultoreen elkarteak udalari. "Eskaera eskulturak Durangoko espazio publikoari ematen dion

balio kultural eta artistikoan oinarritzen da", zehaztu dute. Udalak kezka nagusi bat zuen, eskulturak luzaroan irauteak "arriskua ekar dezakeela herritarren segurtasunari begira, obraren izaera iragankorra eta sortu zutenetik irauteko

bokaziorik eza kontuan hartuta". Hala ere, Eskultoreen Elkartearen "ahalegina eta ekarpen kulturala" aitortuta, eskulturaren segurtasuna eta egonkortasuna bermatzeko "baldintza jakin batzuekin" onartu dute eskaera.

Hauek dira udalak ipinitako baldintzetariko batzuk: atzealde ixtea eskulturaren barrura sartzea eragozteko; kanpoko arkitekto batek txosten bat aurkeztea, lurzoruan eraginik ez izatea eta obraren egonkortasuna bermatzeko; kokatuta dagoen lursailaren jabeen baimena lortzea (erabilera publikoko lursail pribatua da); zuraren egoera aldizka berrikustea eta eskultura 2025eko urtarrilaren 30erako kentzeko konpromisoa hartzea.

Alde biek baldintza horiek onartu dituzte eta lorturiko akordioa positibotzat jo dute, ohararen arabera. Azkenik, Durangoko Udalak eta Eskuahaldunak Eskultoreen Elkarteak kultura sustatzeko eta artearen bitartez espazio publikoa aberasteko konpromisoa berretsi dute.

## Herriaren Eskubidea, "pozik"

Herriaren Eskubidea/Independenteak alderdiak eskultura mantentzeko mozioa aurkeztu zuen azken osoko bilkuran, baina ez zen eztabaidatu. Alderdiak "poza" adierazi du eskulturak han jarraituko duelako. Herritarren partetik "harrera ona" jaso duela eta eskulturari argazkiak ateratzera joaniko bisitari kopurua "handia" dela azaldu dute ohar batean.

## Gai librean

### Behin baserri bat oso osorik jan nuen

Neba jaiotzear zela, izena pentsatzeko esan zidaten etxean. Ez nuen denbora asko behar izan orduko ikaskide baten izen-abizenak botatzeko, horrela, panba: Markel Areitio. Gurasoek barre, hori ezin zela. Ez nuen guztiz ulertu zergatik. Ba, orduan, Mikel! Eta esango nuke izendatze hori izan dela egun arte, memoria eta maitasun erresistentziaren nire sinbolo handienetako bat.

Iduri du, batzuetan, behin eta berriro berrirakurri behar dugula hitz bat, mezu bat. Badakigu zer jartzen duen, baina haren bila harrapatzen dugu geure burua. Berrikusten dugu irudi bat, begiak pausatuz. Gogoratzear soilik nahikoa izango ez balitz bezala.

Bada, behin, baserri bat oso osorik jan nuen. Lehenengo harritik, azkenera.



Ainhoa Olaso Behargina

**Ezkatzean, sabaiko txorizoen azpian, izeko Estherrek paperezko mantel zuria zabaldu zuen mahaian, mugarik gabe marraztu nezan**

**Osabak helduen arteko eztabaidan mahaiaren beste aldetik begietara begiratu zidan elkarrizketara hurbilduz**

Etartean agurtu nituen txakurrak. Seiehun metro koadro zero eta han behean teilatuak, errepideak eta tximiniak. Unai urrinean zebilen ardiekin. Katuska zuriak jantzi eta zerriari kalabaza zatia eman genion jaten. "Estutu arnasa asunekin ez erresumintzeko!". Ezkatzean, sabaiko

txorizoen azpian, izeko Estherrek paperezko mantel zuria zabaldu zuen mahaian, mugarik gabe marraztu nezan. Banillazko natillak elkarbanatu nituen Goiurekin, eta Olatzen alboan iturrian zapaburuak harrapatzen ikasi. Osabak helduen arteko eztabaidan mahaiaren beste aldetik begietara begiratu zidan elkarrizketara hurbilduz, kartzelako funtzionarioak tronpatzen irakatsi zidan, ametsak desiratzen eta, dantzariak banangoan oin puntak beste, gogoia altxatzen. Akordatzea nahikoa ez eta kantu egingo dugu. Plaza bete miresmen, osaba Mikel!

**Akordatzea nahikoa ez eta kantu egingo dugu. Plaza bete miresmen, osaba Mikel!**



**Iñaki Solagaistua Intxaurrealde**  
Txirrindularitzako epailea  
**IURRETA | 1957**

## "Lasterketa baten atzean jende askoren lana dago jokoan eta ezin duzu hutsik egin"

40 urteko ibilbidean, Iñaki Solagaistua txirrindularitzako 700 probatan baino gehiagotan aritu da epaile lanetan

**TXIRRINDULARITZA** • JOSEBA DERTEANO  
Iñaki Solagaistuak txirrindularitzako epaile batek egin ditzakeen lan guztiak egin ditu, dela motoan lasterketa jarraitzen, dela helmugan denborak hartzen, dela dopin kontrola egiten... Espezialitate guztietan aritu da: errepidean, ziklo-krosean nahiz pistan. Bizkaiko eta Euskadiko epaileen batzordeko presidente ere izana da, bederatzi eta lau urtez, hurrenez hurren. 66 urte ditu eta 70 urte izan arte jarraitu dezake. Helmugara heldu gura luke Abadiñon bizi den iurretarrak.

**Nondik datorkizu epaile izateko afizioa?**

Bizikleta zalea naiz, betidanik. Iaz, esaterako, 3.600 bat kilometro egin nituen bizikletan. Gaztetan Duranguesagaz lehiatu nintzen, afizionatuen mailara arte. Marino Lejarretaren kintakoa naiz. Nire beste anaia biak ere txirrindulari izanikoak dira. Hirurok izan dugu afizioa. Hogeitaka urtegez hasi nintzen epaile, txirrindularitza utzi eta gero. Zergaitik? Afizioagaitik eta mundu honetan jarraitzeagaitik.

**Landa-lana eta bulegokoa, biak probatu dituzu. Zein duzu gurago?**

Diferenteak dira. Bulegokoa erantzukizun handiagoa dago, eta batzar asko. Nire ustez, landa-la-

nak ematen dizuna berezia da. Esaterako, motoan txirrindularien ondo-ondoan joatea esperientzia

**Epaile baten erabakirik gogorrenak kanporatzeak dira. Behin treneko hesiak jaitsita zeudela, txirrindulariak hesi azpitik pasatu ziren. Kanporatu egin genituen**

ederra da. Gainera, zaleekin eta txirrindulariekin hartu-emana izateko aukera ematen dizu.

**Baduzu lasterketa kutunik?**

Toki askotan aritu naiz epaile, Euskal Herrian nahiz kanpoan; Tarragonan, Leridan, Kantabrian kasu, eta gusturen Bizkaiko lasterketetan sentitu naiz. Lagun asko egin dut. Joan naizen herrira joan naizela, oso ondo hartu naute beti.

**Futboleko epaileen inbidia zarete.**

Gure lanak ez du futbolekoagaz zerikusirik. Gu oharkabeago pasatzen gara. Futboleko epailea zelaian egoten da, denen begi bistan. Gainera, txirrindularitzan errespetu handia dago epaileekiko; baita zaleen euren artean ere. Txirrindulari guztien familiak elkarren lagun egiten dira. "Zure

semeak edo alabak ura behar duela? Bada, neuk emango diot".

**Garai bakoitzeko txirrindularirik onenen epaile izan zara.**

Gorospe anaiak, Pedro Delgado, Miguel Indurain, Igor Astarloa... asko. Behin, Lance Armstrongek parte hartu zuen lasterketa bateko epaile izan nintzen. Bizkaiko Bira izan zen, 1992an, Armstrong afizionatua zela. AEBetako selekzioagaz etorri zen. Bartzelonako Joko Olinpikoen urtea zen eta Bizkaiko Bira hilabete lehenago zenez, hona etorri ziren, Joko Olinpikoak prestatzera. Gogoan dut lasterketa bat irabazi zuela.

**Ziklo-krosean edo errepidean, asko aldatzen da epaile lana?**

Ziklo-krosa ikaragarri gustatzen zait. Bizkaian, ziklo-kroseko lasterketarik gehienetan aritu naiz. Ziklo-krosa batuagoa da; txirrindulariak, zaleak... denak bertan daude eta giro berezia sortzen da.

**Zein da epaile modura hartu behar izan duzun erabakirik gaxena?**

Epaile biguna izan naiz, dena esan beharra dago (barrez). Aurretik abisuak emanda, osteko zigorrak ekiditen ahalegindu naiz. Nire ustez, erabakirik gogorrenak kanporatzeak dira. Behin, ni parte nintzen epaile taldeari gertatu zitzaigun. Treneko hesiak jaitsita

zeudela, ihesaldi bateko txirrindulariak hesi azpitik pasatu ziren. Epaileok batu, araudia aztertu, eta kanporatu egin genituen. Urte dezente joan dira harrezkero.

Eguraldi txarra egiten duenean epaile lanetan aritzea ere ez da erraza. Gogoan dut Berrizko ziklo-kros bat, orain urte gutxi. Haize zakarra zebilen. "Hau bertan

behera utzi beharra dago", esaten zidaten batzuek. Baina gauzak ez dira hain errazak. Beste epaileekin batu nintzen lehenengo, eta antolatzaileekin ondoren. Antolatzaileek pisu handia dute. Azkenean, haizea apur bat baretu zen eta aurrera jarraitu genuen. Emakumeen Opena laburtu egin behar izan genuen. Itzuli bat gutxiago egin zuten. Abadiñoko beste ziklo-kros proba bat ere badut gogoan. Itzuli biren faltan, lasterketa bertan behera utzi genuen.

**Zein lasterketa edo Itzulitan gustatuko litzaizuke aritzea?**

Frantziako Tourrean, esaterako. Vueltan ere ez naiz aritu. Orain urte batzuk, Vueltan aritzeko aukera izan nezakeen, baina, egia esanda, ez zait gustatzen egun askoan etxetik kanpora egotea. Itzulia bera luze egiten zait.

**Txirrindularitzako epaileen lana gutxietsita dago?**

Ez dakit. Dakidana da konpromisoa eskatzen duela. Nik beste ogibide bat izan dut, baina hantxe egon naiz asteburuetan, zegokion herrian, euria, haizea zein elurra egin. Lasterketa baten atzean jende askoren lana dago eta ezin duzu hutsik egin.

**Dopin kontrolak egiten ere aritu zara.**

Bai. Lasterketako tentsioagaitik-edo, txiza egin ezinik egoten dira batzuetan. Lau orduan zain egonikoa naiz. Lasterketa ordu batean amaitu, eta bostetan oraindino begira. Litro eta erdiko ur botila bi edanda ere, alperrik. Inoiz txirrindulariak dutxan ere sartu ditugu, ea uragaz txizagurea sartzen zitzairen.

**Zeintzuk dira zure hurrengo probak?**

Berriatuako proba, Laukizkoa, Zornotzakoa eta Itzulia dira hurrengoak. Asteburu bat ere ez daukat libre. Baina, tira, etxera bueltan paseo bat emanda deskonektatzen dut.



Iñaki Solagaistua Mikel Landagaz.

# Bigarren Mailari eusteko borrokan, Amorebietak aurkari zuzena bisitatuko du

Amorebieta azken sailkatuak Andorra azken-aurrekoaren zelaian jokatuko du



Amorebietaren aurtengo hamaikako bat, eskualdeko hiru jokalarigaz: Jon Morcillo, Xabi Etxeita eta Iker Unzueta. SD: AMOREBIETA

## FUTBOLA • JOSEBA DERTEANO

Amorebieta futbol taldea larri heldu da Bigarren Mailako azken txanpara. Hamabi jardunaldiren faltan, sailkapenaren zuloan dago eta ezinbestekoa du puntuak hiru batzen hastea, sei puntura duelako salbazioa. Astelehenean Andorraren zelaia bisitatuko du; azkena eta azken-aurrekoa elkarren kontra. Lau puntu talde bien artean. Hiru puntuak lortzea bezain garrantzitsua izango da aurkaria eurak barik uztea.

Egoera zein den ikusita, begi ertzetik aurkariaren jarduna ere jarraitu beharra dago. Alcorcon

azken-hirugarrenak eta Vila-real B azken-laugarrenak partidua gatzak dituzte. Igotzeko borrokan bete-betean sartuta dauden Sporting eta Eibar izango dituzte kontrario, hurrenez hurren.

### Iker Unzueta eta Jürgen Locadia herbeheretarra fitxatu dituzte eraso indartzeko

### Gol gabezia

Kabalak kabala, puntuak zelaian banatzen dira eta hor Amorebietak badu zer hobetu, batez ere

erasoan. 30 partidutan 22 gol sartzea uzta pobrea da. Gabezia horri aurre egiteko, klubak Iker Unzueta abadiñarra eta Jürgen Locadia herbeheretarra fitxatu ditu azken hilean. Orain aste bi, Unzuetak gol ederra sartu zuen, buruz, Albaceteren kontrako berdinketan. Locadia heldu berria da. Joan zen asteburuan Leganesen kontrako azken 20 minutuetan jokatuta debutatu zuen. 30 urteko jokalaria PSV taldean hezi zen. Gerora, Ingalaterrako, Alemaniako, AEBetako, Irango eta Txinako maila gorenetan jokatuko du.

# Larrasoloeta eta Zaldi Baltza xake matearen atarian daude

Azken jardunaldiaren faltan, Durangaldeko talde biak eta Santurtzi B puntuetan berdinduta daude lehen tokian



Durangoko txapelketa bateko argazkia.

## XAKEA • J.D.

Bizkaiko xake ligak amaitzeko azken jardunaldiaren faltan, gori-gori daude kontuak. Esaterako, Bizkaiko Maila Gorenean hiru talde puntuetan berdinduta daude lehenengo tokian: Durangoko Larrasoloeta, Elorrioko Zaldi Baltza eta Santurtzi B. Zortzi jardunalditan, 19,5 puntu batu ditu horietariko talde bakoitzak. Azken jardunaldian, Zaldi Baltzak Barakaldo azken sailkatua izango du aurkari, eta Larrasoloetak sailkapenaren erdian dagoen Getxo.

Horago begiratuta, eskualdeko ordezkari nagusiek, Abadiño Ak

eta Zornotza Ak, joan zen asteburuan amaitu zuten Euskal Liga. Laugarren eta zazpigarren tokian amaitu zuten, hurrenez hurren.

### Eskualdean, Abadiño Ak eta Zornotza Ak joan zen asteburuan amaitu zuten Euskal Liga

Azkenik, azpimarratzekoa da Abadiño B Bizkaiko Lehenengo Mailan egiten dabilen lana. Lider da eta 2,5 puntuko aldea ateratzen dio Portugalete B bigarrenari.

## Jokaldia

### Taldearen lana, emaitza bikaina

Lerro hauek idazten hasi nintzenean argi nuen zeri buruz arituko nintzen. Eta eguaztenean, Bilbao Basketen FIBA Europe Cup-eko partidua ikusita, ezinbestekoa egin zitzaidan izenburuaren eta testuaren bitartez adierazi nahi dudana.

Eguaztenean, Bilbao Basketek 28 puntugaitik irabazi zion Varsoviako Legiar-i (81-53), aurreko astean aurkari beraren kontra aspaldiko partidurik txarrena jokatuko eta gero (83-64). 19 puntugaitik galdu zuen joaneko partiduan. Beltzetik zurira igaro ziren, tartean Granadaren kontrako ACBko partidua azken minutuetan galduta. Partidu garrantzitsua, zer esanik ez, baina bertan geratu zen.

Hala eta guztiz ere, egunotan entrenamenduetan egindako lanak bere fruituak eman zituen. Talde lanaren



Unai Zamalloa Zubiaurre  
Saskibaloia

### Bilbao Basketek 28 puntugaitik irabazi zion Varsoviako Legia saskibaloitalkideari. Beltzetik zurira igaro ziren.

### Gurera etorrita, eskolek eta Tabirakok urteetan landutako lankidetzaren hitzarmena sinatu zuten

emaitza izan zen. Talde lanak zuzentzen eta osatzen ditu okerrak. Bide horretatik heltzen dira garaipenak. Batzuetan denbora gehiago hartuko du, beste batzuetan epe laburrean helduko da, baina helburua betetzeko bide zuzena talde lana da beti. Oinarri bat eraikita badago, berriro bide ona hartzea errazagoa egin

daiteke, eta Jaume Ponsarnau Bilbao Basketeko entrenatzaileak hori gogoratu zuen aurreko partidua jokatuko eta gero. Zorionak denei!

Gurera etorrita, Durangon, eskola guztiek eta Tabirakok lankidetzaren hitzarmena sinatu zuten. Elkarrekin egindako lana indartzea du oinarri hitzarmen horrek. Hainbat urtean, pandemia tartean gertatu zela ahaztu gabe, landutako akordioa sinatu zuten. Hurrengo urteetarako Durangoko saskibaloitalkidearen garapenaren abiapuntua izatea da helburu nagusia. Hemen ere, Bilbao Basketen antzera, talde lana da helburuak betetzeko biderik aproposena. Batzuetan ez da erraza izaten ideiak bateratzea, baina akordioa agente ezberdinen artean landutakoa izateak balioa ematen dio. Kasu honetan ere, oinarri sendoak jarri dituzte, etorkizunera begira lan egiteko.

# Korrika: ibilbidea Durangaldean zehar

## Martxoak 20

<b>Zaldibar</b>		<b>Eitzaga</b>	9:15:26	<b>Santa Marina</b>	9:33:29
<b>KM-22-Aixola</b>	8:54:00	<b>Goierrri bidea</b>	9:20:01	<b>Areitio gaina</b>	9:40:30
<b>Aixolako urtegia</b>	9:02:41	<b>Mallabia</b>		<b>Mallabiabarren</b>	9:47:00
<b>Aixola auzoa 5</b>	9:06:01	<b>Goierrri bidea</b>	9:26:37	<b>Mikel Zarate</b>	9:51:50

## Martxoak 22

<b>Zornotza</b>		<b>Zengotitabengoa</b>	20:00:33	<b>Murutatorre</b>	22:15:38
<b>BI-725 KM 20</b>	17:39:45	<b>Zengotitabengoa</b>	20:07:04	<b>Sasikoa kalea,1</b>	22:22:09
<b>BI-725 KM 21</b>	17:46:15	<b>Elorrio</b>		<b>Galtzarreta kalea</b>	22:28:40
<b>San Pedro kalea</b>	17:52:39	<b>BI-3321 KM 37</b>	20:13:43	<b>BI-623 KM 30</b>	22:35:10
<b>Nafarroa kalea</b>	17:59:00	<b>BI-3321 KM 38</b>	20:20:13	<b>Izurtza</b>	
<b>Gane auzoa</b>	18:05:30	<b>BI-3321 KM 39</b>	20:26:45	<b>BI-623 KM 31</b>	22:40:38
<b>N-634 KM 90</b>	18:12:01	<b>BI-3321 KM 40</b>	20:33:16	<b>Mañaria</b>	
<b>N-634 KM 89</b>	18:18:32	<b>Erreka kalea, 6</b>	20:39:59	<b>BI-626 KM 32,3</b>	22:49:05
<b>N-634 KM 88</b>	18:25:02	<b>Ibaikua kalea, 2</b>	20:46:30	<b>BI-626 KM 33</b>	22:55:36
<b>N-634 KM 87</b>	18:31:32	<b>San Fausto kalea</b>	20:53:00	<b>BI-626 KM 34</b>	23:02:07
<b>N-634 KM 86</b>	18:38:02	<b>San Agustin BI-3331 KM 37</b>	20:59:32	<b>BI-626 KM 35</b>	23:08:37
<b>Iurreta</b>		<b>Atxondo</b>		<b>BI-626 KM 36</b>	23:15:09
<b>Arriandi N-634 KM 84</b>	18:44:41	<b>BI-3336 KM 44</b>	21:04:11	<b>BI-626 KM 37</b>	23:21:39
<b>N-634 KM 83</b>	18:51:12	<b>BI-3336 KM 45</b>	21:10:51	<b>BI-626 KM 38</b>	23:28:13
<b>N-634 KM 82</b>	18:57:42	<b>ARTIA BI-3336 KM 45</b>	21:17:21	<b>Abadiño - Urkiola</b>	
<b>N-634 Bidebarrieta</b>	19:04:13	<b>Abadiño</b>		<b>BI-623 KM 39</b>	23:34:44
<b>N-634 KM 81</b>	19:10:43	<b>BI-3336 KM 47</b>	21:24:02	<b>BI-623 KM 40</b>	23:41:17
<b>Abadiño</b>		<b>BI-3336 KM 48</b>	21:30:32	<b>BI-623 KM 41</b>	23:47:47
<b>Matiena N-634 KM 80</b>	19:18:49	<b>Solozabal kalea</b>	21:37:05	<b>BI-623 KM 42</b>	23:54:20
<b>Zubibitarte 14</b>	19:25:22	<b>BI-732 KM 49,1</b>	21:43:36	<b>BI-623 KM 43</b>	0:00:50
<b>Elorriagazar</b>	19:31:53	<b>Durango</b>		<b>Otxandio</b>	
<b>Berriz</b>		<b>BI-732 KM 50</b>	21:49:44	<b>CF-323 Errepidea</b>	0:07:28
<b>N-634 KM 78,50</b>	19:40:58	<b>Zeharmendieta</b>	21:56:14	<b>CF-323 Errepidea</b>	0:12:40
<b>N-634 Eitua industriagunea</b>	19:47:31	<b>Laubideta, 6</b>	22:02:38	<b>Ospitale kalea</b>	0:24:22
<b>N-634 San Antonio</b>	19:54:03	<b>San Agustin, 10</b>	22:09:08	<b>Olaetako bidea</b>	0:29:34

## Abadiño

Martxoak 15, barikua

'Hiru kortse, azufre asko eta brandy gehiegi' antzezlan. Errota Kultur Etxean

Martxoak 16, zapatua

'Lasterbidean' bertso saioa. Errota Kultur Etxean

Martxoak 17, domeka

'Bizkasoro' filma. Errota Kultur Etxean

Martxoak 21, eguena

'Udalatx, ura eta atxa' filma. Txanporta Kultur Etxean

Martxoak 22, barikua

16:30etatik aurrera Berton Bertoko askaria umeentzat. Ondoren, dantza emanaldia. Traña-Matienan.

20:00 Burgerrak Zelaietan.

20:00 - 23:30 Eingo Taldearekin erromeria.

## Otxandio

Martxoak 15, barikua

19:00 'Gora Euskal Herrietsak' Asisko Urmenetaren komikiaren aurkezpena. Bolalekuan

Martxoak 16, zapatua

16:30 Txixiburduntzi eguna. Oinez galtzadatik Mekoletara

Martxoak 17, domeka

Eguerdian Korrikaren alde, otzara baten zozketa. Plazan

Martxoak 22, barikua

Egunean zehar, Korrika txikia, dokumentala, kale girotzea, korrika zuzenean, pelota partiduak, afari merienda herrikoia, AIKO taldea, Korrika Otxandiotik

## Mañaria

Martxoak 22, barikua

20:30 Rakata punk elektrotzaranga

23:30 Xabi Solano eta Zigor DZ

## Mallabia

Martxoak 15, barikua

19:00 Trikipoteoa. Antolatzailea, Zaparrada

Martxoak 17, domeka

12:00 Txistulari eguna, Andra Mari elizan. Antolatzailea, UEMA.

Martxoak 18, astelehena

16:15 Guraso euskaldunentzat sentsibilizazio tailerra, eskolan. Antolatzailea, UEMA.

Martxoak 20, eguaztena

17:00 Mamiki batukada. Herriko kaleetan

20:00 Almazenean antzezlan. Aretoan

Korrika pasatu ondoren, Diskorrika familientzako

Martxoak 21, eguena

19:00 Zineforum Bizkasoro, Kontzejuzarrean. Antolatzailea, Udala.

## Elorrio

Martxoak 17 - 18 - 19

20:00 Bizkasoro. Arriola Kultur aretoan

Martxoak 22, barikua

11:00 Bizkasoro. (DBHko ikasleentzat) Arriola Kultur Aretoan

14:30 Korrika txikia

15:00 Txokolatada plazan

18:30 Diskofesta, DJ Kaktus. Herriko plazan

18:30 - 20:00 Fanfarrixo herrian zehar

20:15 Korrikari ongi etorria Miñotan

Martxoak 23, zapatua

20:00 Baginaren bakarrizketak. Arriola Kultur Aretoan

## Zornotza

Martxoak 21, eguena

10:00 Korrika txikia

Martxoak 22, barikua

17:00 Mamiki batukada. Herriko kaleetan

20:00 Almazenean antzezlan. Aretoan

Korrika pasatu ondoren, Diskorrika familientzako musika

## Atxondo

Martxoak 15, barikua

18:30etatik aurrera Korrikako petoak salgai plazan

Martxoak 22, zapatua

Goizean zehar Korrika txikia

Arratsaldean kale animazioa plazatik Irubidera

21:30etatik aurrera Herri Afaria frontoian. Ostean, DJak Gaztetxean

## Garai

Martxoak 22, barikua

Arratsaldean, Garaiko Udalak lekukoa eramango du Abadiñon

19:30 Olaketako aparkalekuan, Etorri Trumoitte Kultur Alkarteko kilometrorra

## Iurreta

Martxoak 22, barikua

11:00 Korrika txikia

19:15 Burrunba elektrotzaranga. Herrian zehar

20:00etatik aurrera Euskolabel oilasko pintxoak.

## Berriz

Martxoak 22, barikua

Goizean, kantaldia. Eskolan

15:00 Korrika Txikia.

18:15 Diskorrika. Olakueta plazan

20:00 - 21:00 Lizartzako txaranga

Apirilak 11, eguena

11:00 Bizkasoro (DBHko ikasleentzat eta AEK-ko ikasleentzat)

19:00 Bizkasoro (edonorentzat)

## Durango

Martxoak 21, eguena

19:00 Euskaldungak. San Agustin Kultur Gunean.

Martxoak 22, barikua

17:30 Aurpegi margoketa eta puxika tailerra. Otamotzena auzo elkarte


17:45 Igel txapelketa. Otamotzena auzo elkarte

18:30 Triki poteoa Otamotzena auzoko tabernetatik

19:00 Bertso saioa: Sustrai Colina, Iruri Basagoiti eta Erika Lagoma. Gai jartzailea: Unai Iturriaga. Otamotzena auzo elkarte


# ANBOTON ESKELAK IPINTZEKO NEURRIAK ETA PREZIOAK

## Eskelak eta oroigarriak paperean




**Izena Abizena  
Abizena**

Iurretan hil zen, 2023 ko apirilaren  
13an, 85 urte zituela




*Testua / olerkia*

Familiakoak



**Izena Abizena  
Abizena**

Iurretan hil zen, 2023 ko apirilaren  
13an, 85 urte zituela



*Testua / olerkia*

Familiakoak

**Prezioa** 2x2  
modulo

Paperean edo webgunean **75 €**  
**Anbotokideek 65 €**

Paperean + webgunean **115 €**  
**Anbotokideek 105 €**

**Prezioa** 3x2  
modulo

Paperean edo webgunean **110 €**  
**Anbotokideek 100 €**

Paperean + webgunean **150 €**  
**Anbotokideek 130 €**

## Eskelak webgunean

ESKELA

**Izena  
Abizena Abizena**



DURANGO

2022ko maiatzaren  
30ean hil zen.

ESKELA



**Izena Abizena Abizena**

Testua / Olerkia

*Durango, 2022ko maiatzaren 30ean*

### Eskelak ipintzeko moduak:

- Anbotoren bitartez: **946 810 658** telefono zenbakira deituta edo **anboto@anboto.org**-ra idatzita
- Anbotoko bulegora etorrira: Bixente Kapanaga, 9 behea
- Ehorztetxearen bitartez

Eguazteneko 14:30ak arte jasoko dugu informazioa.

## Botikak

**BAKIKUA, 15** · 09:00-09:00

BALENCIAGA, EZKURDI  
PLAZA 8 - DURANGO

MELERO, SAN PEDRO  
31 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, URBITARTE  
POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA, LUIS  
URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

IRUARRIZAGA, SAN MIGUEL  
15 - ZORNOTZA

**ZAPATUA, 16** · 09:00-09:00

SARRIA, SASIKOA 17 - DURANGO

SARASKETA, LUIS  
URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

09:00-13:30

BALENCIAGA, EZKURDI  
PLAZA 8 - DURANGO

GAZTELUMENDI, J.A.  
ABASOLO 2 - DURANGO

NAVARRO, ARTEKALEA  
6 - DURANGO

DE DIEGO, INTXAURRONDO  
22. - DURANGO

BAZAN, URIBARRI 5 - DURANGO

ETXEBARRIA, MONTEVIDEO  
ETORB. 2. - DURANGO

CAMPILLO, MONTEVIDEO  
ETORB. 24 - DURANGO

LARRAÑAGA-BALENTZIAGA,  
BERRIO-OTXOA 6 - ELORRIO

FARMAZIA MATIENA,  
TRAÑABARREN 15. - ABADIÑO

MELERO, SAN PEDRO  
31 - ZORNOTZA

RUIZ, EL ALTO-BIDE ZAHAR  
14 - ZORNOTZA

GUTIERREZ, TXIKI OTAEGI  
3 - ZORNOTZA

IRUARRIZAGA, SAN MIGUEL  
15 - ZORNOTZA

GOIRIA, SABINO ARANA  
6 - ZORNOTZA

09:00-14:00

IRIGOIEN, BIXENTE  
KAPANAGA 3 - IURRETA

09:00-22:00

SANCHEZ, URBITARTE  
POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

**DOMEKA, 17** · 09:00-09:00

IRIGOIEN, BIXENTE  
KAPANAGA 3 - IURRETA

SARASKETA, LUIS  
URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

**ASTELEHENA 18**  
- 09:00-09:00

SARRIA, SASIKOA 17 - DURANGO

SARASKETA, LUIS  
URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, URBITARTE  
POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

IRUARRIZAGA, SAN MIGUEL  
15 - ZORNOTZA

**MARTITZENA, 19**  
· 09:00-09:00

UNAMUNZAGA, MURUETATORRE  
2C - DURANGO

SARASKETA, LUIS  
URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, URBITARTE  
POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

IRUARRIZAGA, SAN MIGUEL  
15 - ZORNOTZA

**EGUAZTENA, 20**  
09:00-09:00

CAMPILLO, MONTEVIDEO  
ETORB. 24 - DURANGO

SARASKETA, LUIS  
URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, URBITARTE  
POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

IRUARRIZAGA, SAN MIGUEL  
15 - ZORNOTZA

**EGUENA, 21** · 09:00-09:00

NAVARRO, ARTEKALEA  
6 - DURANGO

SARASKETA, LUIS  
URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, URBITARTE  
POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

IRUARRIZAGA, SAN MIGUEL  
15 - ZORNOTZA

## Zorion Agurrak

ZORIONAK@ANBOTO.ORG · EGUAZTENeko 14:00AK ARTEKO EPEA

Zorionak  
guztioi!



### GOZATU GOZOTEGIA

Zorionak, **Unax (971. alea)**!  
Hamabostean behin zotz egiten dugun tarta zuri egokitu zaizu. Oparia eskuratzeko txartela gura duzunean jaso dezakezu lurretako gure egoitzan: Bixente Kapanaga, 9an.

Ermodo, 11 DURANGO

Tel.: 946 201 663

661 40 14 00

gozatudurango@gmail.com

Gozatu Gozotegia

gozatugozotegia



Martxoaren 16an **Uzuri** Cebrianen urtegune da. Zorionak, poxpolin!



Zorionak, **Peio!** Oso ondo pasatu zure egunean. Jarraitu beti bezain alai. Askok maite zaitugu.



Zorionak, **Maialen** eta **Intza!** 18 urte egingo dituzue, batak martxoaren 16an eta besteak 17an. Jai zinetenetik beti egon zarete batera eta zelako neskatila jatorrak eta ederrak zareten biak! Egun zoragarria pasatu dezazuela espero dogu. Musu handi bat bioi eta jarraitu lagun minak izaten beti!

## Eguraldia

ZAPATUA 🌡️ 8° / 22° ☁️

ASTELEHENA 🌡️ 10° / 17° ☁️

EGUAZTENA 🌡️ 9° / 19° ☁️

DOMEKA 🌡️ 12° / 23° ☁️

MARTITZENA 🌡️ 7° / 19° ☁️

EGUENA 🌡️ 9° / 14° ☁️



# Eutsi gureari!

Nafar hegoaldeko uzta eskutik eskura

otsailak 25 - martxoak 13

Eskatu Nafarroa hegoaldeko oliba-olio birjina estra, arroza, pasta, kontserbak, lekaleak eta ardo loteak euskaraz etiketatuta eta ekoizlearen jatorrizko prezioan.



errigora.eus



# "Elkartea hortxe izan dugu beti laguntzeko, ekintzak antolatzeko"

40 urte bete dira Iurreta Txirrindulari Elkartearen sortu zela, eta, urteurrena ospatzeko, egitarau oparoa osatzeaz gainera, maillot berezia kaleratu dute. Gaur egun, 227 bazkide dira



## IURRETA • AITZIBER BASAURI

Zikloturismoa sustatu eta koordinatzeko helburuagaz jaio zen Iurreta Txirrindulari Elkarte; eta, era berean, Txirrindularitza Eskola sortzeko eta kategoria minoritarioentzako lasterketak antolatzeko aukera bideratzeko. Bazkideak erakartzeko lehenengo saiakeran, 100 bat lagun batu ziren: Victor Gandiaga Zabala (Eibar, 1955) eta Agus Ruiz Larringan (Durango, 1956), euren artean. Biei aitaren-gandik heldu zaie txirrindularitzarako afizioa, eta gogotsu eusten diote. Urteurrena ospatzeko, bazkaria, bizikleta erakusketa eta heraldia antolatzen dituzte, udazkenerako. Orozketa

Kronoa eta Dorletara irteera ere bai. Zelakoa izan zen elkartearen sorrera? Agus Ruiz: Iurreta oraindino Durangoko auzoa zen garai hartan, eta elkarteak Iurretako Kirol Taldearen barruan eman zituen lehenengo pausoak; futbola, pilota eta herri kirola ere biltzen zituen orduan kirol taldeak. Iurreta desanexionatu eta gutxira, orduko Zuzendaritza Batzordeak Iurreta Kirol Taldeetik irtetea erabaki zuen. Orduan 20 bat bazkide ziren.

Victor Gandiaga: Kirol taldean futbolak zuen pisurik handiena, eta tenzio momentuak egon ziren. Baina Iurretakoa izateak harrotasun pun-

tu hori ematen zuen eta elkarteak Iurretaren independentzia baieztapen horretan parte hartu gura zuen. Iurretako maillotagaz joate-

**Askotariko ekintzak sortu eta kirol herrikoa sustatzea izan da beti elkartearen helburua**  
VICTOR GANDIAGA

rakoan, herriaren irudia eta izena zabaltzen genituen, eta elkarteak horri egokituriko diru laguntza merezi zuela uste genuen.

Atzera begiratuta, zeintzuk momentu nabarmenduko zenituzkete?

V.G.: Txirrindulari Eskolaren sorrera. Izan ere, askotariko ekintzak sortu eta kirol herrikoa sustatzea izan dugu beti helburu. Kirolaz gozatzeko, ez lehiaketa handietan aritzeko. Eta Emakumeen Bira antolatzen hasi ginenekoa, jakina.

A.R.: Ahari Txirrindulari lasterketa, San Migel Saria, Kofradien BTT Martxa edo Txirrindulari Eskolen Artekoa ere hor daude.

Emakumeen Bira izan du oihartzunik handiena.

A.R.: Bai. Berriz hasi zen antolatzen, Ismael Lejarretaren eskutik. Guk eta Abadiñoko Javier Elorriagak lagundu egiten genuen. Baina Lejarretak utzi egin zuen. Lasterketa hazten joan zen apurka-apurka, handiegi bihurtu zen arte.

V.G.: Adinean aurrera goaz eta belaunaldi aldaketa gatxa da. Antolaketan geroago eta gutxiago ginen eta lan handia zen geundenontzat.

**Apurka-apurka hazten joan zen lasterketa izan zen Emakumeen Bira, handiegi bihurtu zen arte**  
AGUS RUIZ

Zer ekarpen egin dizue elkarteak? Badago afiziorik herrian?

V.G.: Bizi handia eman dit eta lagun asko. Baina, afizioa badagoen arren, dena delako arrazoiengaitik belaunaldi berriak ez dira elkarte bategaz konprometitzen.

A.R.: Zaletasun handia dago, baina konpromiso gutxi. Elkarte hortxe izan dugu beti laguntzeko, ekintzak eta lasterketak antolatzeko.

Zein txirrindulari aukeratuko zenukete?

V.G.: Ez naiz inoren jarraitzaile sutsua izan. Baina Bahamostes, Pulidor, Loroño... ditut gogoan. Geroago, Indurain.

A.R.: Marinoren jarraitzaile sutsua izan naz beti.

Elkarteak beste 40 urte egingo ditu?

V.G.: Ez dakit. Pesimista naiz.

A.R.: 40. urteurrena ospatuko dugu, ez dakigulako 50.eraiko sasoioko egongo garen. Belaunaldi berrien esku egongo da.

## Lau-hortza

Markel Sanchez Zelaia Behargina



## Indar Unibertsalaren Teknika

Joan zen astean Akira Toriyama hil zen, Dragoi Bola marrazki bizi-dunen sortzailea. Nik ere ordu dezente pasatu nituen umetan Son Gokuren abenturei begira, eta nostalgia piztu zait. Akordura etorri zaizkit Krilin, Bulma, Tao Pai Pai, Namek planeta, 18 eta 19 ziborgak eta beste asko. Baita Son Gokuk Boo Ahaltzua menderatu zueneko ere. Ez zuen berak bakarrik lortu, baizik eta Kaitok erakutsitako Indar Unibertsalaren Teknika erabili: munduko biztanle guztiei eskatu zien besoak zerura altxa zitzatela, eta denen indarra batu eta energia bola erraldoi bat sortu zuen zeruan, gero Boo Ahaltzua jaurti eta hura akabatzeko. Zenbatek ez ote genituen besoak altxatuko telebistaren aurrean gure indarra bidaltzeko.

Aspaldian, behin baino gehiagotan altxa ditut besoak telebista aurrean, baina desesperantzaz: ETBn euskaldunak euskaldunekin erdaraz ikustean, euskarazko fikzio berririk ezin topatzean, aurrekontu gehiena erdarazko katera bideratzen dutela ikustean. Uste dut ez naizela bakarria izan. Kontua da ez dagoela gure haserre hori energia bola batean batuko duen Son Gokurik. Nostalgia piztu zait, bai, ETBk belaunaldi oso bat euskarazko edukiekin entretenitzen zuen sasoiak, erdaldunek ere euskarazko telesailak ikusten zituztenekoaz, ETBk hizkuntza normalizazioan bere funtzioa betetzen zuenekoaz.

Baina ez gaude nostalgietarako. ETBk berpizkunde bat behar du, urgentziaz, has dadin edukiak sortzen telebista eta saretarako, ahalik eta gehien, mota guztietakoak, dagoen modu unibertsalenean: euskaraz. Kaitok erakutsitako teknikan lez.

IURRETA ERAIKUNTZA BERRIA

INFORMAZIO GEHIAGO inmobiliaria KBIA DURANGO

**kbia**  
94 612 35 41

Arrosa koloreko bizitza



**Lorengunea**  
BIZIGUNEA · IURRETA

2, 3 eta 4 logelako etxebizitza eta atiko argitsuak, terraza zabalekin eta bista garbiekin  
Terrazen itxiera kristalezko gortinarekin  
planta tipoetan · garajeak · Erdigunetik hurbil egoteaz eta ingurune lasaiaz gozatu

**grupo eibar**  
inmobiliario



WWW.LORENGUNEA.COM

comercial@grupoeibar.com  
www.grupoeibar.com